

**OLERTI 1987-90**

SANTIAGO ONAINDIA

## AURKIBIDEA

### POESI JATORRA

Barrendiko neurtitzez ( <i>Aurre-Apraiz'tar. Beledin</i> ) .....	107
Goizalde larria ( <i>Balendik Aurre-Apraiz</i> ) .....	108
Balbearen ego baltzak ( <i>Balendik Aurre-Apraiz</i> ) .....	110
Biziaren arian ( <i>Angel Bidaguren</i> ) .....	112
Udabarrikoa ( <i>A.B.</i> ) .....	113
Udakoa ( <i>A.B.</i> ) .....	113
Udagoiengoa ( <i>A.B.</i> ) .....	114
Negukoa ( <i>A.B.</i> ) .....	114
Amaierakoa ( <i>Angel Bidaguren</i> ) .....	115
Askotan ( <i>S. Muniategi</i> ) .....	116
Bakoitzarekikoz ( <i>S. Muniategi</i> ) .....	118
Añoberoz, Artzain ona ( <i>Paulin</i> ) .....	120
Edestia aztertuaz ( <i>Ugarte'tar Martin</i> ) .....	121
Errugabeko zigortua ( <i>A. Beloki</i> ) .....	130
Aita Damaso Intza'ri ( <i>Yosu Exea</i> ).....	134
Gaur, Akelarre Gorbeian ( <i>Yosu Exea</i> ) .....	135
Mateo B. Moraza'ri ( <i>Yosu Exea</i> ) .....	135
Gaurkoa bai jai aundia ( <i>J.E.</i> ) .....	136
Zatoz, eguzki ( <i>Legor</i> ) .....	138
Landara onetik frutu ona ( <i>Legor</i> ) .....	140

### BERTSOLARIAK

Naturaren iraulia ( <i>Abel Enbeitia</i> ) .....	143
Ibargungo Rikardo'ri ( <i>J.M. Azpiri</i> ) .....	144
Neure sorterriari ( <i>J.M. Azpiri</i> ) .....	146
Zugana nator ( <i>J.M. Azpiri</i> ) .....	148
«Basarri»'ri ( <i>J.M. Azpiri</i> ) .....	150
Aurra ( <i>Paulin</i> ) .....	152

### ITZULPENAK

Geroko gizonei ( <i>Bertolt Brechet-Igotz</i> ) .....	155
Arrobia ( <i>Karol Wojtyla - Aita Onaindia</i> ) .....	158
Esopo'ren Ipuiñak ( <i>Igotz</i> ) .....	164

### IRITZIAK

Aita Santi Onaindiaren Olerkigintza ( <i>Juan Mari Lekuona</i> ) .....	171
Maruri-tar Erramun ( <i>Munigategi-tar Sabin</i> ) .....	177

# **POESI JATORRAK**

## BARRENDIKO NEURTITZEZ

*Onaindia'tar Santi  
karmeldar Aba gurgarriari,  
bere larogeigarren  
jaiotegunean.*

Karmeldar praille zintzo, ene adiskide,  
barrendiko neurtitzez agurtu nai zaudaz,  
neure olermen-itzen zorion-agurraz;  
zeure jaiotegunez. zeugaz, ni, pozkide.

Bizitza-goienean pozarren zakustaz  
izadiari adi, gogoia amesgarri;  
elerti-barrutian zulakoak urri:  
Zure lanen ederrak txunditurik gaukaz.

Arlo sastrakatsuan bidegin trabea,  
sostorrek alboratu, sasiak urratuz,  
elkorrek ziran landak loraz apain dozuz:  
Indar barriz azkortu dozu euskerea.

Atsedenaaren poza nekeen tontorrean  
arnasea barriztuz, etorria biztu  
lanean ekiteko; giroa gozatu:  
Zure izenak dis dagi argitsu inguruan.

Bake-aldi ta guda urkoaren urgazle,  
arimentzat bakea ta poza zabaltzen  
larogeira el zara, guztiai on eiten:  
Gizartearentzako zentzuzko irakasle.

Etzenduzan kikildu baitegiko illunak:  
Etsaiaren aurrean sendo adorea;  
ezespen eta laidoz, erbesteratzea,  
baiña aurrera zuk zeure, gogoko asmuak.

Jainkoa ta aberria zure gogai-zentzun,  
urte luzeak-zear bide-lagun argi..  
Zuri begira goitik, pozar dis-dis dagi:  
Zorionez ospatu zeure jaiotegun.

*Aurre-Apr aiz'tar Balendin'ek*

## GOIZALDE LARRIA

Illuna zan nagosi.  
Illun baltz eta itzela...!  
Eriopetuen gogo naibagetuetan  
erantzukizun barik itaunak  
ittoten ziran.

Idatzita dago,  
baitegiko orma ezkoetan,  
opageientzat epai zorrotza  
eta gertu dagoz suizkilluak,  
epaitueri begira,  
gau baltz eta urratuan.

Begiak zabalik eta ixilik dago  
gau illuna  
eta eraillen oiñotsak datoz,  
ixiltasuna zapalduetz,  
burdiña-artera.

Bat, bi, iru, lau...  
«Gertu zaiteze ta ala, geugaz,  
aize garbia artzera...»  
irainka dirautse,  
lotsa bagako irri ta zarataz.

Abertzaleak dira;  
gorrotoaren indarrak baituak:  
Eztabe iñor zauritu,  
maitasuna dabe *izkillu*  
baiña arerioak biotzean arrak ditu:  
oña ikusteko itsu,  
besteen xedeak ezin onartu.

Goizaldeak ez dauko errukirik.  
Espetxeko ateak zabaldu dira,  
—burdiñazko ate astunak—  
Lo datza oraindik erria.

Arnasa-ots luzeak entzuten dira...  
Tarrantaren otsa...  
Ixiltasuna...  
Ilerriko ormatzar itzelak,  
gurutzeen gerizetak...  
Ustu dabe izkilluak euren gorrotoa.

Illotzak, zuzentzasun-eske,  
zerura begira;  
odol beroa maitasunari deika...

Ixiltasun nabarmenean  
amildu zan goizaldea,  
odola dariola, negarrez.  
. . .Erailleen bularretan  
burruka negargarria...

*Balendin Aurre-Apr aiz*

## **BALBEAREN EGO BALTZAK**

Balbe'ren ego baltzak, anker eta zoro,  
zearkatu ebezan arru ta mendiak,  
goibel ta artega itxirik bakezko zelaiak:  
Arrezkero Eriok illunpean giro.

Sakabanatutako maitasunai deiez  
zoritxarren anotsak, eguratsez, aske.  
Bizi-bearra tinko zuzentasun-eske:  
Oñaze-zelaietan odola tatarrez.

Goi, bee, erdi eta aldamen, etsaiaren kezka,  
itxaropena artega, Erioren menpe.  
Bizitzaren landetan Balbe'ren erpe  
zorrotzak ixu-ikara zabaltzen arduraz.

Nastetzailleen deadar erailkorak ozen  
aroa narriotzen, bakearen etsai,  
oro ondatu gurarik sorbatz zorrotzak zai,  
zillegizti ez lotsa, guztia lorrintzen.

Askatasun galduen oiartzun biziak  
dardaganean daukaz bide, baso ta arru.  
Osertz illunen giro goibela esparru,  
aurrera ezin egin bitizta urratuak.

Eziñaren zidor latz eta aldapatsuan  
itxaropenen billa, amesen bultzadak,  
laprztada ta zauri ingeraz adoreak,  
ostopo ta sastraka, itsumustu larriau.

Gorrotoaren aurka maitasuna iraunkor,  
askatasun-bidean, burrukari zintzo.  
Ixuritako odola, erailduen mintzo,  
debekubakoentzat deadar zalakor.

Oiñazez saminduen bide narrazetan,  
Balbe'ren esanera, bultzadak ilgarri,  
lerkai ta suizkilluak, Erio-egarri,  
egun baltz eta illunen zidor itsuetan.

Ba-yoakuz erriak, agurka udeari,  
arrats gorrien ertzak odolezko oroimen.  
Balbe'ren egaztadak zuntzi beiz len baitlen:  
Negu-sarrerak bekar bakezko pozkarri.

*Balendin Aurre-Apr aiz*



## BIZIAREN ARIAN

*Bizia zer dan?  
Zorion taldeen lauoinka*

### ASIERAKOA

Ildo naroan urre-itxaroen txinpartak  
erein ditu, gozo betean, nekazariak  
t'etxondoko arlo nagusian argi puntak  
—berde ori— agiri dauz, or emen, gariak.

Maitasunaren santutegian arrabitak  
joten jabilkuz odol biren ametz zuriak  
t'oge doneko eresien grazi zurixtak  
lore egin ditu arima biren mirariak.

Solo berde egin da maitasunaren azia,  
lau besoren azaro garbi eta doneak  
ernamindu dauan garitzarik ederrena.

Garatu da maitaleen itxaro bizia,  
argi zorabioz betez zeruko bideak  
aspaldi bai baita leio zabal udalena.

*A.B.*

## UDABARRIKOA

Udabarriaren erasoak ba daroa  
pauso txiki berderik berde gora garia,  
gunik-gun jabilko biziaren jai eroa  
aizeño emeen maite uyolez garria.

Bai eder dizdira muskerren katu-aroa,  
gazteentzat udalenak dakarren saria.  
Gure mutikoak —aspaldi gizon osoa—  
ba daki nundik dan goiz barrien ataria.

Aize orlegien putz sorgiñak zibu-zabu  
darabiz etxondoko garitza burutuak,  
bitxi-mantu irudi eguzki agurrera.

Seme lardenak tinko bi erroak lurrera  
ta ogei udabarri berdeen balakuak  
amets daragitzoz ainbat urrez bete buru.

*A.B.*

## UDAKOA

Ausbizi dirudie soloko zokondoak,  
kalda-aroa da ta eguzkia su-gori.  
Krak-krak garitzak noiz lertuko buru umoak,  
galduko ete bildurrez ainbat urre gorri.

Berein udate bedeinkatu gazte sendoak;  
amets muskerra zana egin da egi ori.  
Neskuts batek eta biak landuko ildoak  
biur jakoz frutu gurenen luberri jori.

Gariak makur deutso itaiari burua;  
ugazabak ixotuko urunen argia  
eguerdiko maien erdirako dizdizena.

Ba joaku uda maastietan galdua,  
urrez betez gero gure lanaren egia,  
ardo mozkorrentzat utziz ondakin onena.

*A.B.*

## UDAGOIENGOA

Egin dau, ixilik, masparrera udazkenak,  
urre t'eztiz bete dakar lepoko zorroa,  
aize epelez igurtzi dauz maatsen ayenak,  
gozo mozkorrez, dirdir agiri dan mordoa.

Pozarren dabil utziz zorrokori onenak  
ta urrez betez biderik bideko osoa,  
kolkoan jabilkoz durrundi ori ozenak  
t'odolean aize epelen eragin gozoa.

Aizeak noizbenka lurrera orri zimelak,  
makaldua baita, nunbait, enborraren guna.  
Etxeko nagusiarenak adar barriak

aspaldi sortuak ditu ta negu itzelak  
ez dau agortuko bere odolena emona.  
Ba ditu ba gerorako ere txirlarriak.

*A.B.*

## NEGUKOA

Lei-aizeen talde izoztuak etor dira  
iñork ez daki nungo bide zearretatik.  
Agertu da negua otzez kikel-kikilik  
maluta mantuetan bildura Oiz mendira.

Sutondoan dago attitte ixil-ixilik  
arte-mukur lodiaren txinparten begira.  
Berez-berez, su-malko bakoitzaren argira  
gau urdin bat jatorko ametsetan bil-bilik.

Ardo zarrak berotu daroatso biotza,  
mukurrari darion suak azurren otza,  
baña: nork berbiztuko mosu illen oztiña?

Oi negu gaizto! biziaren azken txatala,  
amarruz dakarzu zuk beti oben zitala,  
zuriz kukutuz zeure birjintasun zikiña.

*A.B.*

## AMAIERAKOA

Arrats beera laburretan argi motela  
ibai ixilean apurka doan bezela  
noa ni be, ori zimel, argiño laburra,  
urte moltzoen ubide tristeko apurra.

Agoan daroat tristura illen agurra  
ta milla egun gozoren gomuta samurra.  
Banoa ertzetan utziz samiñen orbela,  
dazdatuz eguzkiaren ondakin epela.

Gero, amen baten izanen oroitza astua,  
bilobatxoek be galduko attitterena.  
Zenbat besarkada beroz anima enea!

Baña; ur-oro ibilko nire espiritua,  
olatuen apar, naiz iturriko gardena,  
tangadaka neureentzat ixuri donea.

*Angel Bidaguren*

## ASKOTAN

Bai. Askotan nai genduke emendi ta andik  
ibili, mundua zer dan jakiteko gogoz;  
ibili mendi erpin, ibar, zelaietatik,  
lurralde orenen barri izateko asmoz.

Ikuspegi bakoitzaren dirdira bat jazo  
ta, entzun ta ikusizkoz biotza aberastu,  
ibiliz ibai zear, itxasoz itxaso  
berein ta bost erriren zelangoa altxortu.

Ija ibili baiño geiago egaz egin  
ta, begiek ikus ezin daben itzalpeko  
gogai illun zadortsuak argibidetzeko  
gogaketa sakon arduratsu bati ekin.

Egaz, egaz... ta, aizearen antzera igaro  
norabide jakiñik barik, berein osertzez,  
gaur emen, lur zelaian, ta, gallurrean atzo  
bizitz aldakorrari dagokion berritzez.

Arrano egalez azkatasuna aizeatu  
ta, erle langilleteri ta, txingurriarenez,  
bizitzazko eredu-bide oro gogoratu  
izadiari guk zor dautsegun begirapenez.

Alorrez ibili nai genduke landaz landa,  
ta, lora artean, ederbera, Maiatzeratu,  
ta, ibai baten itxasoratzeari jarraitu  
osteraz osteraz, baiña, beti aurrerantza.

Txoriekaz be zugatz adarburu gorenera  
alaikiro igo ta, abestu orri artean,  
bizia aldarrikatuz egunaz batean  
zozo baltz goiztari edo, karnaba antzera.

Itza bebil gogo garbiaren ta biotzarenez  
egibidezko zentzumen argi, adoretsuz  
gizatasunezko ereintzaz ta, maitasunez  
oldozkun oro zuzen ta artez oñarrituz.

Udabarriak alai, abestu bedi gugan  
asierako bizitzaren gora-nai ausartaz  
ta, Neguak be, bere giro illun ta otzaz,  
ez bedi ez orbanik itzi gure animan.

Jantzi zaitez bai itxaropenezko erlegiz  
eta, zanpatu nai zaitun etsipen baltzari  
ez amor emon, malko itunen tamalkeriz,  
samindura goibelez datorren egunari.

Eskura dagigun bizitzaren irriparra  
ta, zabaldu aren ongarri eder, onura,  
aren eragiñezko laguntzaren goidura,  
aren pozbidezko urregorri ta zidarra.

*S. Muniategi*

## **BAKOITZAREKIKOZ**

Barru barrutik begiratu egizu gogoz  
gauza guztiak izan oi daben berekiki  
izate eta senera, bakoitzarekiko  
arimaen egitazko zergai ta zelangoz.

Oarmenezko begiratze argi, barrukorrez,  
ta, entzumenaren laguntasun zoli, biziz,  
begiratu billakuntza ardurakorrez  
biotza onbidez bertanberatu ta irauliz.

Bizitzazko igidurapean dakuskezu  
izadiaren aldakuntzazko bizitasuna,  
lurtar mundu onen agerpen argitsu  
ta, gauzaen beren arteko loturamena.

Maite dagigun bizitzazko edergai oro  
ikasiz zer bakoitzari darion izkuntza,  
udabarri gorakoi edo udazkeneko  
orri-jauzte itunak dakarren aldakuntza.

Bakoitzak dagersku bere gogai, zertasuna,  
(loreak lorearena, aizeak aizearena)  
bakoitzaren ezkutapenezko zador, guna,  
egunbera eta arratsbera datorrena.

Uginberazko ur aundiz edo, legunkiro,  
olastaz olasta gabiltza «nornikaturik»  
berein aizeren arabera ta, arrokero,  
bakoitzaren gose-egarriak asetu nairik.  
Bakoitzak berean negar edo barre dagi  
txoriak lez, goiz-arratsetako agurrean,  
etsipenez edota alaitasun betean  
euren biotz barrua uztutzean kantari.

Ikasi daigun gauzaetara begiratzan  
zugatz zaurituen negar-zotiñak entzuten,  
itxas orroen esangura illuna neurtzen  
mendietako bizi oiartzunak be bereizten.

Ikasi nor danakaz bat norbera izaten,  
gauza guztien zergaietara urreratzen,  
izadiaren abotsakaz jaungoikoratzen,  
maitasunaz biotza osasundu, aberasten.

Biziak ots dagi bai txikian ta aundian  
bakoitzaren elburubidezko almenean;  
ots dagi erleak eztigintzadurundian  
ta, ots, txingurriak be, etenbako lanean.

Orra eguzkia, illargia ta izarrak  
mundua berotu, edertuz, emoi betean!  
Orra mitxeletak be beren ezebezean  
lorarik lora, alaiturik zelai ta larrak!

Zenbat izaki, zenbat bizitza soka dantzan!  
Batzuk arrak-jota, besteak ederrik, lerdan,  
biziera estu edo nasaizko ibilkuntzan  
bakoitza bere izan-nai, izateari eusten!

*S. Muniategi*



## AÑÓBEROZ, ARTZAIN ONA

Betorkit goi amasa  
artzaiaren argiaz  
burua argitzera;  
betorkit goi arnasa  
Gotzaiaren odolaz  
nirea indartzera.

Artzaiaren oldea  
burdin antzez egoan  
artzaigo arloan;  
zelaiak, janariak,  
ardiak ta bildotzak  
gozartuz gogoan.

Ardien janaria  
gurin ikusiko dau  
zelai orlegian;  
bazka osasuntsua  
eskeiniko dautse  
bildotsei larrean.

Artzain eta artzaiñora  
euskal lurrean dabiltz  
arriskuz josita;  
mendiak latzak dira,  
ta zelatari dabiltz  
artzak etsaituta.

Bildots errugabea  
otso artean legez  
dabil artzain ona;  
gogoen janaria  
egia dau miñean;  
itzik argiena.

Ardiak gose dira,  
zuzentasun egarri,  
kurutza bidean;  
eguzkia zerutik  
argitzen doa lurra  
artzain elburuan.

Gizontasun erio,  
sinismenaren garra  
alkar maite dira;  
artzaiaren makillak,  
ontasunez, daroaz  
ardiak larrara.

Ardiak maite dabe  
artzaiaren abotsa,  
zuzen, egizkoa;  
artzaiak maite ditu  
ardi eta bildotsak:  
ontasun osoa.

Artzain bat, artalde bat,  
alkartuta dabiltzaz  
amets bardiñagaz;  
poza dario itzari,  
maitea biotzari,  
zoriontasunaz.

Leialtasun ikurra  
odol eta aragi  
biurtuta eukan;  
erruz, ezin eikean  
zintzotasuna urratu  
egizko burrukan.

Ontasunetik dator,  
zugatzaren lorea,  
otseindu bearra;  
zure izate guztia  
on eñez urtzen zan;  
oro maite garra.

Egia bakarra da,  
izarraren diztiraz  
gizadia argitzen;  
gaiztasunetan, sendo,  
beartsuaren alde  
jun ziñan laguntzen.

*Paulin*

## EDESTIA AZTERTUAZ

*(Gernika erri kiskaliaren oroitzan,  
gizaldi-erdi geroago)  
—1937-4-26—*

### I

APIRILLA...  
Apiril ameskorra.  
Oizko joera aurrerantza doa,  
bere egun-txorta  
ondartuaz.

Agian, ondartzera ta areago  
egun-giro gozatsuan,  
milla amets pillatuaz.

Sagastiak lore-bete,  
sarats-ondoak begi illantsuak  
leertuaz;

larre-saillak txuri-orixka  
lore-bitxitan,  
landa-txoriak txorrotxioz  
ugaritze egunetan,  
elkar poztuaz...

Apirilla ba'doa,  
ba'doa bere bidatxidorrean;  
Maiatz, aizpa sabelkideari  
eskua luzatuaz...

Apiril ameskorra;  
Apiril zoroa...  
Ik erdibitzen digun,  
leena ta geroa.  
Jazkera bitxienaz,  
aldakor giroa;  
negua kolkoan-da,  
aurrez udaroa...

APIRILLA...  
37'ko Apiril gogoangarriak,  
26'garren aorria eman du  
bere baitan.

Aizea bare,  
egurasgiroaren jabe;  
ta oskarbi urdiña  
Zeru-goietan...

Lugiña oizko alorrean,  
etsipenaren uztarran;  
ereitaroaz ametsetan;

uzta berria irudimen-da,  
leen erneak  
jorraketan.

Etxeko burua lanpeturik,  
izerdi-likaz bustirik;  
ta andrezkoak,  
etxeko zeregiñetan.

Aiton-amon elduak kontu-kontari  
billobatxoak zainduaz,  
erlazpeko  
armailletan...

Eguna onez doa,  
onez, eta oizko bakean,  
bazkal-osteko  
orduetan...

Apirilla'k eman digu  
bizidunoi oiñarria,  
lekarotik iraziaz,  
bizi-pozen ur-begia.  
Ur gardena, ur gozoa;  
amets oron iturria,  
ametsaren iturri-ta;  
bizitzaren zain berria.

Asteoroko autsi-mautsia,  
peri-toki zabalean;

saltzailleak mingaiña luze,  
erostunen txanponen truke;  
betidaniko marnarrean.

Eskaera-eskeintetan elkar zapaldu,  
edo-ta, erdira joaz mantendu;  
itzez-itzeko  
burruka apalean...

Txerrialdiak gurtesian kurrinkaz,  
uztar-aldiak ausnarrean;

burni-txirrinkan loturiko  
asto-bikoteak,  
oizko ongi-etorria arrantzaz;  
elkar ikustean.

Eskolari piper egiñiko  
mutil-koskorak ere,  
algaraz astoen tartean...

Dena beti bezela,  
urak bere bidean,  
Mundaka-adarrean beera doaz,  
arratsaldeaz batean.

APIRILLA'K, 26...  
Arratsaldea erdiz-erdi,  
ta eguzkia bere printzak orraztuaz,  
itxas-gaiñeratzen.

Enadatxo etorri-berriak aizean,  
lau aldetara ega-joku biurrian;  
eltxo-opillak biltzen...

Laurak bete-betean  
da erausia bat-batean;  
eta goi-sapae urdiña  
beluntzen.

Zerupeko burruna negartiak,  
eta ezkillen dilin-dalango soriak;  
ixiltasun zana zarata bizi,  
ta odol otzak  
irakiten...

Orra gaiñean,  
 pizti egadun imkoitza,  
 nora atzaparrak botako begi-urraka!  
 Im... Iru iruko...  
 konta ezin ala;  
 ingurugunean pillatzen.  
 Araba'n altxaturik,  
 Bizkai'ko h-retan;  
 begiak ikuskizun  
 lau ordu luzetan.  
 Doixtarren txoritarrak,  
 egaraz zebiltzan;  
 eguzkiak erraiñu  
 ego zabaletan.  
 Kantauri'tikan urbil,  
 ain xuxen Gernika'n;  
 jolas-tokia zuten,  
 arratsalde artan.

Aixa jira egin-da,  
 itxas-adar gora;  
 egapetik jaurtiaz  
 leerkaiak lurrera.  
 Aize-txistu zirrara,  
 zartadaz batera,  
 agindua zekarten  
 toki ber-bertara.  
 Gorrotoa arrazoi,  
 indarraz batera,  
 pizti odolzaleak,  
 otsoen sarrera.

Zigorraren azpian,  
 ERRI baketsua,  
 altxor bat darolako,  
 leenik autatua;  
 LEGE-ZARREN zutabe,  
 ARBOLA SANTUA...  
 Gizaldiak leenago,  
 asabek artua,  
 geroztik oiñordeak,  
 arretaz zaindua;  
 onen aitormena da;  
 bere pekatua...

## II

Oiñaztar galduak bezela,  
burdin-txitu zirrarakorraz;  
ta, lertzearen dardaraz,  
lur-etenak erasan-da;  
teillape osoak txinta batean  
ondakin-pilla.

Oeak, maiak, jatontziak amilka,  
edo-ta sapaldetan zinzilika.  
Gizaki triskildua zauri-bizi,  
zain etenak odol-usten,  
polpol-iturri dirudilla.

Amak aur zatikatua besoetan,  
ama bera zaudi-aska;  
ta aurra illa...

Lurrean arrastaka ainbat elbarritu  
odol putzuak atzean utziaz,  
nork lagundukoaren antsiaz;  
iñor gabeko leize utsean  
babes-billa.

Lau ertzetatik sua darion  
labe goriaren errauspean,  
garraren ziskuaz batean;  
negarra, karraxia, agin-karraska;  
kiskal-usai kiratsa,  
ta kee miña.

Aldi berean...  
Lau ordu luzeetan,  
auts-ganduaren kerizpetan;  
etxipenik artzeke,  
erri txotilla.

Onen negarra,  
onen zotiña;  
intsentsu-lurrin gisara,  
ganduzko sarea zulatuaz gora;  
oiñazeen eramanpidez,  
Jainkoagan dijoa;  
erriaren otoitz ixilla...

Gorrotozko eraso basatian,  
indar-neurtze biurrian;  
erri osoa kiskaliaz  
batera;

inpernu artandik,  
leerkerako lur-askak,  
amilka jaurtiriko errukarriak;  
landan ziarduten atxurlariak,  
erbarru-zear eguraskide ibiltariak...  
Zentzu gabe, tiroz ebakirik  
uxoen antzera.

Azokara bilduriko nekazari gordiñak,  
jolasketan zebiltzan aur poxpoliñak;  
auek ere odoletau  
bizitzaren bukaera...

Era ontara agindua beterik,  
ta geiago ezin ondaturik;  
agian ase zaiete odol-egarria,  
aurre-asmo makurraren  
arabera

Bide batez,  
gidari biozkabeak,  
ondamen aren arrazoiak puzturik,  
garaipen-gorantzak  
jasotzera...

Ondamendi ontan,  
gorputz-illak adierazpen  
ondoren datzan izurria.

Indarraren arrazoi soillak lekarken  
jarraipen biurria.

Kiskaliriko ERRI MARTIRIA,  
eriotz-opariz Zerurantz...!

Eramankizunaz eta odolaz  
bein-betirako errauspean eortzirik,  
ondore belaunaldieri mintza...

### III

Orra or lur-joa...  
Mendeek zear iraun-da,  
arbasoen batzar-leku  
autatua.

Orra or... Gernika!  
Guk ezagutu genuan Gernika...  
Arria, arrigaiñean lagatzeke  
autsi ta kiskaldua.

Nazitarren proba-zelai biurturik,  
erri baten jatorri-nortasuna  
irentsi eziñaren ondorioz  
lege-ausleen gorroto-erioz;  
arras zapindua...

Odolgaltze izugarria,  
gauaren egapean estali bearrez;  
gaizkiñak bere eskuen  
garbigarri.

Okerraren zama astuna,  
erkideen lepondora botarik,  
nolabait gezur-sareaz  
nai izan du estali...  
Zeru sapae irikia ordea,  
oizko egitura aldaturik,  
odol, eta erraiñua jasoaz,  
eta lau aizetara zabalduaz;  
ekintza basatiaren  
salatari.

Gain-lausoa ispillutzat,  
erretura ber-beraren irudia  
eskeiñiaz dago lur zabalari.



Lur zabalari,  
ta egun berriari;  
geroak zeatz jaso dezan  
egiaren berri.

Biaramon astunean,  
erri osoa auts biurturik,  
eta auspean kiskalirik;  
iñoiz jakingo ez-dan  
giza-kopurua.

Gorpuzki zatikatuak odol-bildu,  
ondakin kiskalduak mutxikindu,  
ta tokian-tokian  
ixiltasuna urratuaz;  
jabe-gabeko zakur bakartien  
doluzko erausi-marrua...

Gernika... Gernika...  
Belaunaldien buruan,  
Euskal-gizakiaren babesgarri  
izaniko Gernika;  
arras kiskalia...

Gogoangarri utzi digu betirako,  
azken erioan semeen odol-galduak  
irentsi dituaneko  
gertakizun ikaragarria.

Errauspean txingarretan urturiko,  
gorpuzkien gomuta garratzak,  
iraunarazi dezaioke,  
oraindiñoko oroitza;  
gaitzetsi,  
ondakuntza basatia;

ta jaso ere,  
gerorako zutarria...

Orra or, Gernika!  
AUTS SANTUA...  
Errugabeen odolezko  
polpol-errekak  
irentsia...

Orra or, Gernika!  
Fraukotarren txakur-jokuaz,  
doixtar, erromatar,  
ta mairuen apotxarkeriz  
eretzia...

.....

Ona emen, Gernika... !  
Elbarriak... Zurtzak... Alargunak...  
Errauspeko txingarten suaz,  
ari zaar erreak altxa-ta;  
berriro eraikia...

*Ugarte'tar Martin*

## **ERRUGABEKO ZIGORTUA**

Egunkari! Egunkari!  
oiartzun mutua dekan arren,  
ire lerroen edukiak  
egin zidak  
ots,  
sentimen gelan  
zarata mindua  
sor...  
Goreti ikastetxean  
zer...?  
Denaren eta leikenaren  
sugai bakarra,  
jaiotzak mugatu,  
historiak kolpatu,  
justiziak  
ala ola jarri zaituen  
aurra,  
kanta au dizut  
zuri zor.

Zure ama il zen  
bizitzaren  
goizean,  
agian... minez,  
isil isilik,  
lotsaren aterpean,  
beste ama galdu ustuak  
arro!  
aur galtzean,  
bizitzak urrats bat  
irabazi eban  
zu erditzean.

Sabelkide zindularik  
zeunden jauregitik urbil,  
guda bat egoan,  
il biziko  
guda,  
amak, aurrez galduriko  
guda.  
Eriotz mozorroa  
aozabal,  
pozoia il kanpai eske  
ama-ren odolean  
SIDA.  
Zu ortxe...  
ezbear askoren  
seme  
ta amatasunaren  
oore.

Noizbait jakingo duzu  
gertatze auen  
zera...  
aldiz gizonak sinetsi duen  
bizia dela  
plazerra.  
Amaigabeko amodiotan ler  
maitemindu?  
Berdin da  
emea... arra...  
arauak autsiz  
abiatu zen  
baina...  
orra,  
usturik aurkitu da  
usturik zen  
ura,  
naia, ustea ta ezinaren  
gizontxo  
or doa  
drogaperera.

Eskubidez geiegi  
mintzo da,  
bete-bear itza  
zabortegira bota

eta  
idatziz doa  
aurrerapen delakoaren  
poema  
lizundua.  
Baina entzun!  
Agian...  
zure ama zen  
poema orren barnean  
ain lizundua ez zen aldiko  
izkia,  
guztien gaindi  
opa izan zizun  
berak galtzear zuena  
bizia.

Bizia,  
diotenez,  
kutxatua ornen...  
diotenez,  
Sidaren erole...  
diotenez,  
gizartearen arrisku zara...  
diotenaren diotenik  
ulertzen ez duzun  
aurra,  
nere salaketa  
artu onez.  
Mila kutsaduraz  
izadia pozoitzen ari den  
gizona  
izan nai du zurekin  
juez.  
Kideko lagunak ken  
jolas enparantza esitu  
ezitzeko aukerarik  
ez,

Israel,  
ez dut zu baitan  
gorroto azirik landatu  
nai.  
Amets egin dut...  
aunditua,

norbaitek irakatsia  
zerala  
SIDA sendatzeko  
gai  
eta geiago,  
esku bat luzatu diozula  
beste kutxaduraz  
usteltzen doan  
gizonai.  
Ametsa gaur  
biar  
baleike egi.  
Barkatu... zuk ez etsi.  
Ekin  
eta jarrai.

*A. Beloki*

**AITA DAMASO INTZA'RI**

Aintza zuri, napar jator, zolia,  
maixu, idazle, apez, mixiolari,  
egia aldezten suspar gudari,  
Euzkadi'ko seme aundi-aundia!

Beti irakasten «zeruko argia»  
ludi ontako kristau erriari,  
ta ziñez otseintzen Jaungoikoari  
bete duzu bizi luze, garbia!

Zure urtemuga datorrenian  
pozten da adiskideen biotza;

eta, beraz, jasotzen dute leian  
zure alde aien suar otoitza:

«ONETSI, JAUNA, AL-DUZUN NEURRIAN,  
EGUN DA BETI GURE AITA INTZA!!!»

.....

Iya emendik urte bietara,  
eun urtekoa zareanean,

danok egun bertan alaitzen garan!

*Yosu Exea*

## **GAUR, AKELARRE GORBEIAN**

Gaur, akelarre Gorbeian...  
Nunaitik goruntz doiaz  
sorgiñak poz-pozik, leiaz...  
Jaia, asteko zorian...

Isuskiaz gona artean  
ariñ, barrez, kantuz, dauziz,  
beti kiñuz ta triskari,  
uu... jujuju... jajaja...

Buru izaten illargia  
bardingabe jaitzean,  
illbeteko kerizpean,  
damate mamuak egaz.

Utsalki darakar Gurutzeak,  
banatzen baitira tximistan...  
Ilzarra, eder, zidartua...  
Aizea, otza, izoztua...

*J.E.*

## **MATEO B. MORAZA'RI**

Aintza zuri, gizon jator, aundia,  
lantegian zuzen, trebe, gartsua,  
arabar aldun bikaiñ, jakintsua,  
zaintzeko Madrid'en Euskalerrria!

Zeure «ITZALDI» betiraungarria  
ain zeatz, egiti ta argitsua,  
izango da unoro ospetsua,  
euskotarren edestiko pitxia...

Eraşi al zenduan alperrikan?  
Ez eiki! Eguzkiak ortzonduan

illuna txautzen dun era beran,  
EGIAK ere, oren buruan,

gutxien itxadoten dugunean,  
dirdir egiten du bere orduan!

*J.E.*



## GAURKOA BAI JAI AUNDIA

Gaurkoa bai jai aundia!  
Jainkoaren izenean.  
onesten du Aita Ixidrok  
au gure etxe berria.

Estibaliz-ko Andra Mari,  
Gure Mikel Goianingeru,  
baita Anton Deuna ere,  
bakoitza zaigu Zaindari.

Estibaliz-ko Birgiña  
(bi arabarrak izanda;  
danok iya gazteiztarrak)  
nai-dugu gure Erregiña.

Mikel Deuna euskalerrian,  
maite ta premiñazkoa;  
orixe gertatzen da be  
Angiozar-tarren artian.

Gure enparantz-tokia  
beti, Anton Deunarena;  
urtero zozkatuten zan  
ilbeltzaren txerri aundia.

Gaiñera Jainkoak daki  
zenbat maite ditugula  
Xabier, Prudentzi, Balendin,  
Garikoitz eta Iñaki.

Zenbat asaba zerutik  
ona begira bai daude!  
Alako laguntzapean  
egon geinke bildur barik.

Nik eztakit zergaitikan,  
baiña toki ederrenak  
bereganatzen dituzte  
zerutarrak ludi ontan.

Euren zerua lurbiran  
Goiko Jauna goresteko,  
baita geure onerako,  
tinkotzen dute sarritan.

Aien aztarnak jarraitzen,  
(bear ditugula diote),  
asi gaitezen lenengo  
leku politak biztantzzen.

Emengo toki bikaiñak  
zeru-zatitxuak dira;  
ondu ustiatu ezkeru,  
guztiok zeru-zaleak.

Ikus dezagun ederra  
ludi igarokor ontan  
Jainko-osotasunaren  
argazki motel bezela.

«Eder osoaren billa  
jun gaitezen gaur da beti»  
bizirik gauden artean  
GURE xede izan dedilla.

Pakea ta batasuna.  
gorde ditzagun sendian  
egipenetan agertzen  
elkarrezko maitasuna.

Lau-orrietatik gera  
danok euskaldun jatorrak;  
ez eze bakarrik gorde,  
zabal daigun be euskera,

geure altxorrik onena  
kristautasunez batera:  
arbasoen ondorentza  
ta, berez, Jainkoarena.

Olan bizi-ezkerio  
asten gara dastatuten  
zeru-bizitza lurrean,  
betikoaren abio (1).

Badute orlan jokutzen  
etxe ontako lagunak,  
oingo ta ondorengoak  
BETIKO ONESKUN DEZATEN! ! !

(1) preludio

*J.E.*

## ZATOZ, EGUZKI

Laño baltz, argi goibel;  
egun naasia.  
Mendi gainak edurrez,  
Beerako euria.  
Gunak ezoz beratuz  
otz asegarria.  
Biotz-ondo barnean  
tristura etsia...

Gorputz-giar ta zanak,  
izotz-arri antzo,  
giltzak sor, oinak astun,  
urrats baldar, gogor.  
Odol bizigarria il.  
Biurtzen dana illotz.  
Oi negu anker, zital,  
zaarren eriotz!

Txoritxo egalari,  
abeslari trebe;  
kanta ta kanta beti,  
izadiaren pozle.  
Gaur ixilik, gordeta,  
otzak ken adore;  
edo jan billa, mozkor,  
egaskada indargez.

Adar-ilotz, idorrak  
enborretan tente.  
Izotz-gaitzak barnetik  
elbarriaz bete.  
Beso igar dirudie,  
zeruari eske  
bizitz-zorna barria.  
Bizi, bizi, arren!

Noizbait desegingo zuk  
argi alaigarri,  
izotz-izurrite au.  
Dagiala ebagi  
zure mii zorrotzak  
odei zoztor ori.  
zauri gordin ortatik  
sar dadin eguzki.

Zauri estutik mear  
erraiñu bizkorrak,  
orratz fiñaren gisa  
zulatuz aparra,  
lurra jo, adiraziz gero bizikorra,  
itxaro-begientzat  
zori iragarkorra.

Ao ikusgaitza apurka  
zulo da biurtu.  
Eguzkiaren suak  
odeia suntsitu.  
Illun nazkagarria  
Argik dau uxatu.  
Zerua urdinduz doa,  
izadia poztuz.

Eguzkik laztan gozoz  
artu dau besotan  
izadi triste, otza  
besarka berotan.  
Izotz-arri, edurra  
urtuz maite sutan...  
Urak kantari doaz  
abes polpoletan.

Adar-illotz, tenteak,  
zoma-eragiñez,  
ostoz betetzen asi;  
larra eriak, lorez;  
atso-aguren barna,  
zer bizigarriez.  
Dana bizi da bizi  
beroaren munez.

*LEGOR*

## LANDARA ONETIK FRUTU ONA

Landara sorreratik zuzena,  
Laket-eusle bearrik ez.  
Lerden, gogor, ezetsu, ausarta  
kozkonduz gorputz-biotzez.  
Kimu barri ioritan oparo,  
frutuen itxaropenez.  
Kristo antzo santutasun, adin,  
jakiturian elduetz.

Lotua, baiña guztiz librea,  
—kontraesana itzetan—;  
Lokarri bigun, ikuseziña,  
funtsa biotz-taupadetan.  
Maitetasuna daroa izentzat...  
Palau-k dau txiki-txikitan  
kimua frutu egin, bereak  
ustuz esku-pobreetan.

Landara, gora-gora, luzetuz.  
Inguruan naastea;  
jauntxokeri, izkanbilla, gorroto  
ta pobretasun pobrea.  
Aske-lokarriz samurtu gura  
ain egoera tristea.  
Arazoon osakai, ebatzi  
Karmel-Ordenan sartzea.

Bseo-eskuak tenk gorantz eske  
txiro goseti, moltzoka;  
gaixo osagaitz iguingarriz joak  
etxe-bazterretan aika.  
Frantzizkoren erraiek deadar  
gizadi gaizto onen am-ka.  
Goseti, txiro, gaixo biurtzen  
premiatsuen babeska.

*Legor*

## **BERTSOLARIAK**

## NATURAREN IRAULIA

Ez dakit zeinen eskutik,  
 batzuk diote zerutik  
 ez baitut ulertzen tutik,  
 mundu haundi hau sortu omen zen  
 ezer ez zegon lekutik  
 milaka urte ordutik  
 nahiz izan tarte arruntik  
 oraindik da erdi zutik.

.....  
 Mendi edo itsasoa  
 basamortu ta basoa  
 dena ederki jasoa  
 izakietan elkarganako  
 maitasunaren gozoa,  
 bildotsak maite otsoa,  
 zein bizitza eroso...  
 Hura bai paradisoa!

.....  
 Mundu eder ta gastea,  
 osotasunez askea,  
 irauli zaigu tristea  
 bi abere fin azaldu ziran:  
 Adan eta emaztea,  
 horra sortu zen nahastea,  
 gorroto eta pestea  
 gaurdainoko desastrea.

.....  
 Nahiz gure «Natura» amak  
 bideak zuzen emanak,  
 laister heldu ziran lanak;  
 odol egarriz sortu zituzten  
 bihotzik gabeko armak,  
 hauen truke gora famak,  
 herrian gerraren dramak  
 «Naturaren» kontra danak

Berez garbia zen soina,  
 mm jartzen diguten oina  
 bihurtzen dute pozoina,  
 Lemoizkoa geldiarazi  
 eta isildu zen baina,  
 oraindik bada zizaina,  
 nornahi astintzeko haina:  
 hara hor martxan Garoina.

.....  
 Bankeru edo militar,  
 paparretan zenbat izar,  
 armetan fama ta indar;  
 hauen gustoak herriarentzat  
 desgrazirik aski dakar.  
 Hara hor nun entzun behar,  
 laister nahi digutela har,  
 «Aireportutzat» Aralar.

.....  
 Paradisoko baratza  
 gaur zikina ta kiratsa,  
 hau konpondu ezin latza...!  
 Lehen zelai eder, orain fabrikak  
 nunnahi dizkigute altsa,  
 zeru zapaian ke baltza,  
 diruduna aberatsa,  
 uler ezineko saltsa.

.....  
 Munduaren ondamena  
 guganaino heldu dena,  
 ez al du ematen pena  
 Mendi gainean zuhaitzen orde  
 burnia edo antena,  
 indarrez lortu dutena,  
 armoniaren etena...  
 Noiz behar dugu kondena...?

*Abel Enbeita*

**IBARGUNGO RIKARDO'RI**

**I**

Ibargun goiko etxeko jauna  
 Rikardo neure laguna,  
 Ari kontuan Urdiñoletaz  
 Alkartea egin duna.  
 Ainbat jokaldi egiñagaitik  
 Bein ere galdu ezduna,  
 Entzun ezazu kaletar onek  
 Gogo onez dirautsuna,  
 Jolastu zaitetz mendi giroan  
 Ori bada nai dezuna.

**IV**

Ainbat denpora pasatzen dezu  
 Ariak gogoz prestatzen,  
 Janari onak emanaz euren  
 Azurrak ondo gogortzen,  
 Baba, Olua edo artoa  
 ixilpean eurei sartzen,  
 Ainbat laisterren azi daitezen  
 Lepo-bizkarrak leuntzen,  
 Eta garaia eltzen danean  
 Jokorako plazaratzen.

**II**

Baserri baten jaio ziñan da  
 Bertan umetatik ezi,  
 Gazte denporan mendiko gauzak  
 Ondo zenduzan ikasi.  
 Orretxegaitik baserritikan  
 Ez dezu iñoiz igesi,  
 Pozikan zaude zeure tokian  
 Bakean zerade bizi,  
 Etxean dezun euskal giroa  
 ¿Nola diruaz erosi?

**V**

Ari kontuan aitua zera  
 Eztago zer esanikan,  
 Guk kaletarrok ezdakirzuzan  
 Gauza asko jakiñikan.  
 Baiña zertxo bat esan nahi dizut  
 Neure biotz barrendikan,  
 Apostu kontun gauza aundirik  
 Ez itxaron plazatikan,  
 Urre gorriak gordegizuz,  
 Ez atara etxetikan!

**III**

Esku artean dezun lanari  
 Beti oratuz benetan,  
 Zure ardiak larratzen dira  
 Iargun goiko maldetan.  
 Edo bestela bedar gozoa  
 jaiotzen dan zelaietan,  
 Nai duten aiña jan eta gero  
 Orruka inguruetan,  
 Esan naiean prest dagozala  
 Topekatzeko plazetan.

**VI**

Aizu Rikardo, kontuz ibili  
 Apostua zarratzean,  
 Ez amorerik eman iñori  
 Erabakia artzean.  
 Gizon zintzo lez joka ezazu  
 Irabazi naiz galtzean,  
 Beti bezela eldu lanari  
 Jokaldia amaitzean,  
 Lan egin gabe ezta erneko  
 Ezer zure baratzean.



## VII

Oraindik sasoi onean zagoz  
Jolastu zaitez jaietan,  
Zeure emazte politarekin  
Egizu dantzan plazetan.  
Irten etxetik noiz-beinka edo  
Libre zauden aldietan,  
Ez pentsa beti ibiltzerikan  
Amai gabeko neketan,  
Zuk aspalditik daukazu toki  
Berezi bat zeruetan.

## VIII

Zartzaro on bat opatzen dizut  
Bizi zarean lekoan,  
Ibargun goiko intxaur arbolen  
Gerizpearen giroan.  
Gure oitura ederrak zabal  
Etxekoen inguruan,  
Euskera ona erabiliaz  
Atadi naiz sutondoan,  
Euskerak leku izan dezadan  
Zure illoben kolkoan.

*Ondarru, 1987,ko Iraila.  
J.M. Azpiri*

**NEURE SORTERRIARI**

**I**

Neure sorterrri maitagarria  
 Zugana nator kantuan,  
 Seme on batek bere Amari  
 Egiten dion moduan.  
 Orain arteño euskera utza  
 Ba-zenduan inguruan,  
 Erdal Olatu sakon bat sartu  
 Zaigu errian barruan,  
 Erdera gaintzen asia degu  
 Euskera zegon lekuan.

**II**

Uste gabeko gaixo txar batek  
 Artzen gaituen antzera,  
 Kanpo jendea etorri zaigu  
 Itxas lanetan jartzera.  
 Euskalerriko Ogi gozoa  
 Gogo onez dastatzera,  
 Etxe ta kanpo euren izkuntza  
 Indar guttiz edatzera,  
 Emen kokatu dira geienak  
 Ez dijoaz itzultzera.

**III**

Atzerritikan etorritako  
 Guztiak edo geienak,  
 Umez beteta aurkitzen dira  
 Adiñ onean daudenak.  
 Elkarrekilan biltzen dira-ta  
 Sendotu euren almenak,  
 Erri osoan entzuten doguz  
 Erderaren gorapenak,  
 Au ikusita zer bide artu  
 Bertako seme garenak?

**IV**

Euren umeak nastuta dabiltz  
 Gure umekin kalean,  
 Adiñ geiago dutenak berriz  
 Dantza-leku illunean.  
 Gazte bat baiño geiago jausi  
 Da erdaldunen sarean,  
 Kontura gabe daude oraindik  
 Erderak dun indarrean,  
 Ezkondutzean bizi berarko  
 Dira Gaztelar artean.

**V**

Sorterrri maite baltz ageri da  
 Zuretzat etorkizuna,  
 Askok ez dute ezagututzen  
 Erri baten ondasuna.  
 Euren barruan ezta egosten  
 Izkuntzaren nortasuna,  
 Erdaldun eran bizi dirade  
 Galduaz euskal zentzuna,  
 Olako gauzak ikusi eta,  
 Nola izan poztasuna?

**VI**

Txori guztiak abesten dute  
 Bakoitzak bere erara,  
 Guk ere berdiñ egin dezagun  
 Euskal semeak bagara.  
 Ez dezaigula aitzakirikan  
 Eztan lekutik atara,  
 Uso zuria ezta joango  
 Moxolo baten gelara,  
 Ez eta ere iñoiz ezkondu  
 Orma txoriaz Enara.

**VII**

Erri berean bizi gerade  
Bi giro ezberdiñetan,  
Txar eta onak izaten dira  
Errialde guztietan.  
Euskaldun gazte zintzoa zuri  
Esaten dizut benetan,  
Ez begiratu maitatzen errez  
usten duten neskatxetan,  
Pentsa ezazu arantzak ere  
Sortzen dirala loretan.

**VIII**

Erriko gazte zugana nator  
Gauzak argi esatera,  
Utzi betiko zuen artean  
Ikusten degun jokera.  
Maitasunezko erdal itzetan  
Erortzen baldin bazera,  
Ezkon lagunak ikasi dedin  
Gure asaben izkera,  
aurrerantzean nun-nai ta beti  
Egin ezazu euskera.

*Ondarru, 1987,ko Irailla*  
*J.M. Azpiri*

ZUGANA NATOR

I

O! Alexander zugana nator  
 Ainbat gauza esatera,  
 Kontura gabe sartu zaituzte  
 Nagusien adiñera.  
 Ume jolasak utzi dituzuz  
 Guztiak alde batera,  
 Urteak joanik iritxi zera  
 Amazortzi gaindutera,  
 Orregaitikan bizi berri bat  
 Dezu emendik aurrera.

II

Adiñ ederra daukazu eta  
 Obeago Osasuna,  
 Ume ziñala sortu zitzaizun  
 Menditar zaletasuna.  
 Euskal giroan aurkitu dezu  
 Aberri jabetasuna,  
 Jarraitu bide zuzenetikan  
 Izan biotz poztasuna,  
 Gurasoentzat gorde itzala  
 Euskadintzat maitasuna.

III

Ni urteetan zartzen nijoa  
 Orain zu zatoz aurrera,  
 Uzten dizutan euskal giroa  
 Eraman lagun artera.  
 Gure euskera maitagarria  
 Plaza erdira atera,  
 Zure antzeko gazte lagunak  
 Danok jokatu batera,  
 Erri zar onen askatasuna  
 Lortzeko lan egitera.

IV

Mundu onetan gauzak ez dira  
 Nai bezelaxe gertatzen,  
 Lore artean bein baiño geio  
 Arantzak dirade sortzen.  
 Uste gabeko gauza txarren bat  
 Iñoiz bazaitzu jazotzen,  
 Jarrai aurrera etsitu gabe  
 Dezun okerra zuzentzen  
 Zeure burua ikusi arte  
 Bear bezela goratzen.

V

Alde danetan agertu zure  
 Euskaldun gizatasuna,  
 Maita ezazu gure izkuntza  
 Zaindu bere nortasuna.  
 Lagun artean zabaldu beti  
 Aberri zaletasuna.  
 Gazte giroan dezutelako  
 Geroko etorkizuna,  
 Gure erriak lortu dezadan  
 Betiko askatasuna.

VI

Gure burruka ez uste danik  
 Ume arteko jolasa,  
 Askatasuna lortzea ezta  
 Izango gauza erreza.  
 Baiña zuk euki biotz barman  
 Ori lortzeko amesa,  
 Etxean eta lagun artean  
 Euskeraz egin solasa,  
 Egunen baten Aberri aske  
 Batean dezagun goza.

**VII**

Zure laguna aukeratzean  
Kontuan euki ezazu,  
Gaur Otso asko bildotz jantzita  
Dabiltzala ba-dakizu.  
Oitako batek urreratuta  
Zerbait esaten badizu,  
Bildurrik gabe era ontako  
Erantzuna emaitzatu,  
Aberriaren etsaia eta  
Jainko gabea zera zu.

**VIII**

Ez pentsa beti lortutzerikan  
Zeure biotzeko naia,  
Gauza guztiak izatn dute  
Asiera ta amaia.  
Izan zaitez ba beti bezela  
Zintzoa eta alaia,  
Gero giroa aldatutzean  
Datorrenean garaia,  
Egunen baten izango zera  
Ipar kaleko galaia.

*Ondarru, 1987,ko Iraila  
J.M. Azpiri*

**BASARRI'RI**

**I**

Zer gauza zailla dan neretzako  
Zutzaz zerbait esatea,  
Zuri dizudan itzal guztia  
Bertso bidez ematea.  
Errezago da ñok eginda  
Norberak irakurtea,  
Obe izango litzaidake, bai;  
Lan au utzita joatea,  
Baiña biotzak beartutzen nau  
Aurrera eramatea.

**II**

Zorioneko Granada erreka  
Basetxe badeinkatua,  
Zu, Iñazio, munduratzeko  
Jainkoak aukeratua;  
Ala bearrez ume ziñala  
Sor-lekutik aldatua;  
Zarautz eder ortan izanik  
Beso zabalik artua,  
Geroztik orri ortantxe dezu  
Izatea sustraitua.

**III**

Zarautz ertan zuen egoitza  
Izandu zan azken portu:  
Euskaldun giro benetakoa  
Zuk antxe zenduan lortu.  
Zenbat kantu zar entzun zenitun  
Guztiak gogoan artu:  
Gazte ziñala bertso Iturri  
Aundi bat zukan zan sortu,  
¡Berdin gabeko Iturri garbi  
Iñoiz ez dana agortu!

**IV**

Gazte aroan nabaiturikan  
Aberriaren Iparra,  
Gure izkuntza izandu bai-zan  
Zuk bazka zenduan larra.  
Bizi guztian euskerarentzat  
Jarririk zure indarra;  
Gizon batzuek eginagatik  
Zuri iseka ta farra,  
Alde danetan geratu dezuz  
Jainkoa ta Lagi Zarra.

**V**

Bizi guztian ibili zera  
Gure izkuntza egiñez,  
Euskerarentzat izandu dezun  
Maitasunak eragiñez.  
Amaika aldiz aurkitu arren  
Egia esan eziñez;  
Zenbat une txar irentsi dezuz  
Zeure lanaren erdaiñez,  
Naiz eta etsal amorratuak  
Zuk aiña euskera jakiñ ez.

**VI**

Bertsolaritza lengo tokitik  
Zuk egin zendun aldatu,  
Sagardo Upel artetik kenduz  
Antzokitara goratu.  
Aldi artako giro garratza  
Bertso legunez bozatu:  
Sasi artean zegon euskera  
Eroazpenez jorratu,  
Gazte arotik asi ta beti  
Gizonki dezu jokatu

## VII

Bertso kantuan gelditu gabe  
 Uri ta baserrietan,  
 Euskera ona erabiliaz  
 Joaten ziñan tokietan,  
 Zenbat biotz miñ lasaitu dezuz  
 Aspaldi ederretan.  
 Iñoiz ez degu itz txar bat ere  
 Aurkitu zure itzetan,  
 ¡Gure izkuntza maite degunok  
 Zurekin gaude zorretan!

## VIII

Guda ankerrak arrapaturik  
 Adiñik ederrenean,  
 Gogo guztia ipini zendun Aberriaren  
 onean.  
 Baiña etsaiak nola zeukaten  
 Indarra goi ta lurean,  
 Lepoa galdu baiño lenago  
 Franco zaleen menpean,  
 Egun batean azaldu ziñan  
 Mugaren beste aldean.

## IX

Urteak joanik itzuli ziñan  
 Berriro zeure kabira,  
 Utzi zenitun senide gaixo  
 Ta lagun zarren tokira.  
 Denpora eldu zitzaizunean  
 Bertso kantuan errira,  
 Edo bestela baserritarrak  
 Alaituzera mendira:  
 Urte aietan ez zan erreza  
 Irtetzen plaza erdira.

## X

Zenbat urtetan bertsolaritzan  
 Ta etzaude nekatuta!  
 Zuk egindako lanen emaitza  
 Gaur daukagu loratuta.  
 Bertso giroa jarri diguzu  
 Itz jatorrez apainduta;  
 Bertsolaria gizon bezela  
 Duintasunez goratuta:  
 Zure izena geldituko da  
 Betiko illezkortuta.

*J.M. Azpiri*

## AURRA

Betorkit goi arnasa  
ikusmena argitzen  
ene gar bizian;  
betorkit suzko garra  
izamena goritzen  
biotz barrenian.

Amaren maite indarra,  
izarra dirudizu  
ortze urdiñean;  
semea sortu dozu  
maitasunaren garrez  
sabel erraiean.

Etxeko eguzkia,  
zeruetako izarra,  
zelaiko lorea;  
arribitxien guna  
agertu da etxera,  
zorion maitea.

Amaren erdi-miñak  
ainbeste negar dakar  
ume jalkieran;  
samin danak geroztik  
eguzki printzak dira  
itz zorionean.

Maitasun bi begira  
alkarren leiaz urtzen  
amatik semera;  
semeak ezin aitu  
noraiñokoa izan zan  
amaren negarra.

Orain dana da argia,  
zeru biurtu bai da  
amaren nekea;  
astuntasuna jun da,  
aurtxoak ekarri dau  
urrezko bakea.

Geroztik goiz ta arrats,  
etxazpiko zelaian  
txoriak kantari;  
urregorrizko piko  
aurtxoari dirautse  
zoriona zuri.

Umearen gogo  
argiaren antzera  
begiak indartzen;  
lenengo amari so  
ta irriparrez ezta  
musuan agertzen.

Aita begira dago  
beren odol danari  
aragi eginda;  
ametsa, maitasuna  
egi biurtu dira  
semea izan da.

Etxeko poz gutzia  
eskurik esku dabil  
biotzak alkartzen;  
berezko lilluramen  
dauka gure izarrak,  
gogoak zoratzen.

Lanetik dator aita,  
nekeak eraginda  
izar orduetan;  
irripar dagi aurrak  
ta astu dira nekeak  
maitasun garretan.

Etxeko zoriona  
aitaren besoetara  
jun nairik begira;  
laztan bat, bi, geiago  
ta amarengana doa  
loaz gozartzera.

*Paulin*



**ITZULPENAK**

## GEROKO GIZONEI

*(Bertolt Brechet)*

### 1

Egi-egiaz, aldi illunetan naiz bizi.  
Zentzuega duzu tolesgabe itza. Bekoki lau batek  
senti-ezkortasuna diragar. Parre dagianak  
oraindik ez du entzun albiste izugarria,  
ez zaio oraindik iritxi.

Nolako aldiak auek  
zugaitzez itz-egitea doi-doi gaiztakeri baita,  
ainbat eta ainbat maltzurkeri ixiltxea dalako!  
Kale zear lasai doan gizaseme ori,  
beren adiskideak aurkituko  
ote dute bear dutenean?

Oraindio, egia da, bizitz janaria dut irabazten.  
Baiña, sinets ezadazute, ala-bear utsa da. Dagidan  
ezerk ez dit asetzeko eskubiderik ematen.  
Ala-bearrez jaregin naiz. (Ene zoria  
aitua balitz, galdua nintzake).  
Au dioste: «Jan eta edan! Goza daukazunez!»

Baiña, nola nik jan eta edan egingo  
jaten dudana kentzen ba'diot gose denari  
eta nere ur-ontzia egarri denak bear badu?  
Eta ala ere, jan eta edan dagit.

Atsegin litzakit, baita, jakintsu izatea.  
Liburu zaarrak azaltzen didate jakinduria:  
munduko burruketatik iges egiñik  
geure bizitzaldi laburra kezka gabe igaro.  
Gogorkeritik alde egin,  
gaitz orde ez eman, ez asebate gurariak  
eta beurok aantzi: orixe duzu jakinduria.  
Nik baiña ezin egin onako ezertxo ere:  
egi-egiaz, aldi illunetan naiz bizi.

2

Urietara iritxi nintzan naste-aldian,  
 gose errege zalarik.  
 Biurrikeri garaian nastu nintzan gizonen artean.  
 Eta ni ere aiekin matxino nintzan biurtu.  
 Orrelaxe igaro nuen  
 lurrean eman zidaten aldia.

Nere ogia jan nuen eraso ta eraso artean.  
 Iltzaillekin lo egin nuen.  
 Maitasuna egin nuen konturatu gabe  
 eta izadiari so-egin nion artega.  
 Orrelaxe igaro nuen  
 lurrean eman zidaten aldia.

Nere aldietan, kaleak aintziretan ziran bukatzen.  
 Itzak zigorrari nindun salatzen.  
 Ezer gutxi nintzan ni. Eta altsuak  
 pozago sentitzen ziran ni gabe. Ba nekian.  
 Orrelaxe igaro nuen  
 lurrean eman zidaten aldia.

Aula zan ene kemena. Elpidea  
 guztiz urrun zegoen oraindik.  
 Argi ikusi zeikean jada, niretzat ala ere,  
 ia-ia jadetxi eziña zirudian.

3

Zuok, gu amil-azi geran aulduratik  
 lastertxe jeikiko zeratenok,  
 gure makal-izatez mintzatzerakoan,  
 gogora itzazute baita itzuri dituzuten  
 egun doakabe illunak.

Oskiak bezela lurraldez gu aldatzen  
 giza-mailla burrukaz, eta etsi-etsita bizi giñan  
 zuzien-gabekieran bizi arren, iñork itzik egiteke.

Eta ba-genkian, ala ere, sumiñak txarkeriaren aurka  
 aurpegira itxura-gabetzen duela.  
 Sumiñak baita zuzengabekeriaren aurka  
 abotsa jarten du garramatz. Gu, zori txarrez,

maitakortasunerako bidea gertatu nai izan gendunok  
ezin izan giñean maitagarri.  
Baiña zuok, gizona gizonaren adiskide  
izateko garaiak eldu daitezenean,  
pentsatu guregan  
errukiortsu.

(1938)

*Itzuli du Igotz'ek*

## **ARROBIA**

*(Karol Wojtyła'rena)*

### **I**

## **GAIA**

### **1**

Entzun ondo, entzun mailluaren kolpeak,  
astiña, erritmua. Otsak uzten dizu  
indarra sentitzea barne, kolpearen indarra.  
Entzun ondo, entzun, tximist-zirrara,  
arriak ere zatitzen ditun ibai sarkorrarena,  
eta nerekin duzu ulertuko lanaren aunditasuna,  
oso-oso, ondo egiña gizonaren aunditasuna dala.

Esku babatua, zauri zaardunekin,  
bere gurari mukerra mailluan du luzecazten  
pentsamentuak ditula askapenak aurkitzen  
zapat dagian arrian, amore dagian arrian.  
Ez duzu indarrrik arrian gizona kentzen ba'duzu,  
zain aundia zartadan, odol mugikorrarena,  
bertan ebakitzen ba'duzu eta ezin-bestezko lekuan.

Billa ezazu maitasuna sumiñean, sukarrez ixiotuan,  
arnasan sartua ibai lasterrean aizea bezela,  
arriak ebaki arteño aoaren otsik irten gabea.  
Gero andik dabilzenak etxean sartuko dira,  
deslai ta izutuak eta norbaitek dioke aopeko  
Etzuen iñork esango, gizaseme sendoa bai zan!

Eta zuk ez izan beldurrik. Gizatiar egotekoak  
ertz oso zabaldun asko batetik zear doazkizu.  
Oro dator urrundik, oro dijoa aurrerantza.  
Gertatzen dan zer orotan zuk begira beti  
maillu-kolpe neurrituan datorkizun Arengan.

## 2

Ur-laster apalak daramazki errizko mokor gizenak,  
tximist-ari bat txibita lez ezkutuan ozka duela.  
Ongi dakite arriak bat-bateko zauzkada,  
bere betiko xalotasuna pirrintaka arrailduz.  
Baiña ez, ez da tximist-indarra indar askatzen,  
bortxa ori eskuan tinko daukana baizik:  
gizon bat da, langille bat.

## 3

Eskuak biotzaren lurraldeak dira, urratuak noski  
mendi-lepoak bezela ur-laster illunakin.  
Gizonak eskuak ditu zabaltzen pozik dagoanean  
eta esku-arre irikietan dakus eginda lana.  
Jendea, beraz, uragatik, joan diteke trankil.

Lurraldeak dira eskuek. Bat-batez ebaki ezkerro,  
zauri irikietatik aske dijoa oiñazea.  
Gizonak baiña ez du pentsatzen, ez du pentsatzen doñazean,  
oinazean bakarrik ez bait dago aunditasunaren izpirik.  
Gizonak ez daki bere aunditasunaren izenik.

## 4

Mailluak astun dagizan eskuetaz gaiñera,  
bizkar-aldea zeintzen duan giar-soskoz gaiñ,  
pentsamentuak berak barrentzen du lanean  
eta tximurtzen duen kopetan aztarna ta ildoaz uzten.

Ta olan unetxo baten argintza gotikua da,  
goitik be era neurtua, begi aurretik doana.  
Iduri bakarrik ez da jada Jainko ta arri artean,  
aunditasunera epaitua ta okerrera makurtua.

## II

### GOI-ARNASA

#### 1

Barne ernetzen da lana, kanpotik da tolesgetzen  
eskua uts-gunean, aidera doa ats-bafada...  
naimenak soiñu dagi, arrian ezkila dalarik,  
eta ideiak nai seguru baten jotzen baldin badu,  
eskuak tinko irixten dira gorenengo me-zerrendara.

Idea seguruz, begi ziur eskierrez  
esku zabalak salneurria ordaindu bear dute.  
Arriak gizonari bere indar-ala dio ematen.  
Lanean gizonak apalkiro du umotu-azten,  
lanak goi-arnasten du egite oso zailletarako.

Nai-izatea ta ideia lanaz dira azi-azten.  
Lagintza aundia da egiten, asko dira deituak.  
Mailluen soiñuan entzun-azi daiteke maitasuna.  
Gure seme-alabak abestuko «Lan aundi-aundia  
egin zuten gure asabak azkeneraiño lan egiñik».

#### 2

Goi-argia ezta itzaltzen gizonaren eskuetan;  
aren biotzak goi-arnasten du arriaren mundua.  
Arrian dakusagu gizonak bururatu duena  
eta bertan ikusten dugu oreka gorenena  
sumiña bide maitasunez atzeman oi dana.

Gure-urratsak dituzte bultzatzen sumiñak eta maiteak.  
Ez bata ez bestea ez dira egungo aitu ta ondartzen.  
Beroaren indarrean, bularraren su-garrean,  
jaio ta janaritzen dira, elkarri saka eragiñik  
egintzan eta ideian araztun urtuaren gisan.

Zuk nai ba'duzu gizonaren jabetzan sartu,  
indar biak bear dituzu irabia zeure izketan  
itz lau-lauz ezin-aldatuzko gogor egiñik  
maitasunaren eta sumiñaren tenkera indartsuari.  
Olan etzaitu iñork gizonagandik urrun al izango.

### III

#### ESKUAK EMATEA

Dizditsua ola, zugatzaren gordintasunean,  
zure besoetan dago langintza latzerako.  
Besoaren atezua barneraiño guztiz sartu  
ta zeugan gauzak urtzen Bittugandik egiña.

Begiak abailduta, betzurdak zorrozturik,  
arriak gezataratuak. Ikusten ez den zaaro batek  
ormak ditu zigortzen, tximist-ari bizkorra,  
Eta eguzkia, uztaileko eguzkia: su zuri arrian.

Nire eskuak al dira, ebakirik, argi dagienak  
bultzi-oiñetan, pikaetan eta sere-eragozkietaq  
Biotzarenak geien bat izanik ere, biotzak ez du  
iñoiz madarikatzen, ezpainañak ola ba'dagite ere.

Nolako taiu arrigarriak, itxura ez erarik gabe!  
Lanerako eskuak, gurutzerako eskuak!  
Sare ostean, bultzi-bidean, pikotxak daude botata.

Zuro arriskutsuak daude aitzetan. Alde eizu.  
Pilarak erausten ditu ur-lasterrak. Gazteak  
bidea egin nai dute. Eta bideak oro  
nire bularreraiño irixten. Aitzak parkatu ote;

Mundu bat daukate oso eskuak ore kan.  
Lertze berri bat eta eskuak berriz alkar  
aldiz jeikitzen dira orma gainetik.  
—Aur bat, ajola gabe, an urbil dabil korrika.

Baiña zuk bakarrik gain daukazun oreka guztia  
orain dago txit urbil eta bertatik alderatzen.  
Makurtu egin bear da eta zutitu atergabe.  
(Aurra sen-gutxiko dozu, ara ta ona dabil unero)

Berriz ere ixillak artzen faitu, biltzen gaitu.  
Bertan sartzen danak, soilki bere burua idoroko.  
Atean gelditzen danak, naizta itxurapen itxura,  
ez du ezertan esku artzen mudnuko gauzetan.



## IV

### LANKIDE BATEN OROITZAZ

#### 1

Ez zegone bakarrik. Denak zekusaten aren soin-giarra  
maillua jasotzen zuenean biotz-pilpil kementsuz,  
sendo beea bere oin-azpi, dana tinko ta gotor.  
Arri bat jaiki zan eta lokuna zuen zartatu  
eta giza-biotz baten sabel-zorroak ler egin zuen.

#### 2

Jaso zuten gorpua, ixillik zijoazten aurreragotuz.

#### 3

Buruz-bera, iraiña zuten agert-azten guztiak.  
Txartes arreak zekarzkiten eta oski lupeztuak.  
Beretako bat erortzean dagitena egiten zuten.

#### 4

Aitu zen beren aldia. Ordu-orratza, bat-batez,  
atzerantz jausi zan zakar, utsean egokiturik.  
Gizonaren barreneraño sartu zan arria  
eta onartu bait zuen, gizona arri egin zen.

#### 5

Nork jasoko du arlosa? Eta nork pentsamentua  
lokunetan, latsuna aiña zartatuetan esnatuko?  
Zelaian jartzen dute, arri-kaskarrean datza.  
Zizpuruka dator emaztea, semea eskolatik.

#### 6

Arenetik bakar sumiña geldituko da bestetan,  
Ez zihoan arengan elduz maitasunez eta egiz?  
Ondoren datozenak, arengandik artuko ote  
aren izate gabe, izate bakarra, bere-bera?

7

Bultzi-orgak lorakin. Eta lanera berriz ere.  
Tximist-ariak osterera ere saltarazten ditu arriak,  
Gizon orrek eraman zuen munduaren egitura.  
Sumiñaren sua beti gaintitzen du maitasunak.

*Itzultzaile: AITA ONAINDIA*

## ESOPO'REN IPUINAK

### 176.— Gizon txakur batek aginkatua

Txakur batek aginka egin eutson gizona, ara ta ona ebillen nora ezenean, nok osatu billa. Alako batek esan eutson ez eukala besterik bere zauriko odolaz ogi-zati bat busti ta gero aginka egin eutson txakurrari bota baiño. Zaurituak erantzun:

—Baiña ori ba'dagit, erriko txakur guztiak or dodaz aginka!

Era bardiñean, txera erakusten ba'dautsazu gizonen gaiztakeriari, oraindik txarkeri geiago egitera daroazuz.

### 177.— Sukaldaria eta txakurra

Gizon bat, bere adiskide ta senidartekoentzatko, aparia gertatzen ebillen. Eta onen txakurrak beste txakur bati dei egin eutson aparitara, oan esanik:

—Adiskide, zatoz ona nigaz aparia egitera.

Eldu zan deitua pozez gaiñezka; jatordu oparoaz arriturik geratu zan, bere kolkorako iñoala:

—Au bai gero itxaroten ez nebana! Asetzeraiño jan bear dot, goserik izan ez dagidan egun batzuetan.

Onako gogoeta ta ausnarrean ziarduala, buztenari eragiñaz lagun txeratsu baten aurrean lez, ikusi eban sukaldariak ara ta ona ebillela, ta, anketatik oratu ta leiotik beera bota eban beingo baten. Eta txakurra atzera biurtu zan alarau gorritan. Bidean beste txakur batzuk aurkiturik, batek itandu eutson:

—Zelan bazkaldu dozu, lagun?

—Edanaren edanez —erantzun eban— mozkortu egin naz, eta ez dakit nundik urten dodanik be.

Alegi onek erakusten dausku iñoren onakaz esku-zabal diranakaz ez dogula geiegi fiatu bear.

178.— **Prantzes-txakurra eta beronen lagunak**

Txakur bat, etxe baten janaritua, patariari aurka egiteko trebetua izan zan. Bein, oneik erreskadan egokituta ikusirik, idunean eukan estuna apurtu ta kaletan zear asi zan arin be arin. Ikusi eben beste txakur batzuk, zezen bat bai-zen sendo, eta esan eutsoen:

—Zergaitik zure zalaparta ori?

—Oparoen bizi nazana ba-dakit, urdailla ondo aseturik; baiña beti nago eriotzeagandik ur-ur, artz eta leoiakaz burrukan erantzun ebaxn.

Txakurrak orduan onela euren artean:

—Errukarria da gure bizia, baiña ederraz; guk ez daukagu artz eta leoakaz burrukatu bearrik.

Ez dogu geugana ekarri bear, arrokeriz ta bizitz onez, arriskua, onegandik iges egin baiño.

179.— **Txakurra, oillarra ta lukia**

Txakur batek eta oillar batek baltzu egiñik, ortik zear joan ziran zoriaren billa. Gautu zanean, oillarra zugatz batera igon zan, eta txakurra arro egoan enbor baten ondoan etzun zan. Oillarrak, oitura ebanez, eguna urratu-ala jo eban berea; an urrean aurkitzen zan luki batek entzunik ara jo eban bertatik, eta zugatz oiñera elduaz, jatsi eitela andik eskatu eutson, abots ain bikaiña eukan piztiari mosua emon gura eutsola-ta. Oillarrak erantzun eutson itxartu egiala lenengo zugatz oiñean lo egoan atezaiña. Eta orduan txakurrak, lukia atezaiñagaz berbetan asterakoan, tarrapataka jauzi egiñik, zatitu eban lukia.

Alegi onek diñosku gizaseme argi asmotsuak, etsaien eraso artean, ba dakiela ziria sartzen eta eurak baiño indartsuago diranakana zuzentzen.

180.— **Txakurra eta txirlea**

Arrautzak jaten oituriko txakur batek, irla bat ikusiz, bere autzak, au da, eztarri-zuloa edegirik, eta albagiñak itxi lazkiro, arrautza bat zalakoan iruntsi eban bera. Lertu ziran gero aren erraiak eta alditxarrak arturik, ots egin eban:

—Merezi izana dot, gauza biribil guztiak arrautza diralakoa, artzen do-dazalako.

Ipuin onek darakusku, ondo ausnartu barik sartzen diranak, errez gaiñ dakarrezala ainbat usterik bako zailtasun.

181.— **Txakurra eta erbia**

Eize-txakur batek erbi bat atrapau eban eta batera ekion aren muturra ozkatzen eta miazkatzen. Erbiak, joku onekin gogaituta, esan eutson:

—Itxi, otoi, ni aginkatze edo-ta mosukatze ori, jakin daidan adiskide zaitudan ala arerio!

Ondo datorkio alegi au bitara jokatu oi dauan gizonari.

182.— **Txakurra eta arakiña**

Aragitegian sartu zan txakur bat, eta arakiña bere lanean ebillela ikusirik, biotz bat artu ta igesari emon eutsan ariñeketan. Arakiña arengana itzuli, ta ariñeketan ikusiaz, atzetik ots:

—Entzun, adiskide! Zagozala zagozan lekuan, gaiñ dautzut begia ezarriko.

Alegi onek erakusten dausku: ezbearrak askotan zuur egin oi dabezala gizonak.

183.— **Txakur loak artua eta otsoa**

Etxe aurrean txakur bat lo egoan. otso bat arengana oldartuz jataldi ederra egitekotan aurkitzen zan, baiña txakurrak eskatu eutson une aretan ez egiala birrindu.

—Orain azur utsa nozu —esan eutson—; itxaron eizu pizkatzen; ezteguak ospatu bear dabez nire nagusiak; betekada ederrak emongo ditut neuk bere, lodituko naz eta zureztat janari askoz oparoagoa izango naiatzu.

Siñistu eutson ari otsoak eta andik alde egin eban. Aldikada bat igarota, itzuli zan otsa eta txakurra aurkitu eban etxe gaiñeko ikustokian; gelditu zan onen azpian eta txakurrari gogoratu eutson bien arteko ituna. Txakurrak orduan bota eutson:

—Oi otsoko, gaurtik aurrera etxe aurrean lo ikusten ba'nozu, ez itxaron alako eztegurik!

Alegi onek darakusku, gizaseme zuurrak, arrisku batetik iges egitean, euren burua zaindu oi dabe bizitza guztian.

184.— **Txakurra eta gerizpea**

Txakur bat ibaia zearkatuz joian aragi-zati bat aoan eroiala. Bere gerizpea ikusi eban uretan, eta beste txakur bat, aragi-zati aundiagoa eroiana zala, uste

izan eban. Eta oni klask eragiñik, bere lagunari erioana kendu naian, arengana joian. Azkenez, baiña, bata ta bestea galdu ebezan; bata, olako aragi zatirik ez egoalako, gatxa jakon aregaz jabetzea; bestea, urak eroan bait eutson aoan eukana.

Alegi ederra, nunbait, miguru ta diru-zaleentzat.

#### 185.— **Txakurra arranaz**

Ba-zan txakur bat billauka agiñak ezarten ebazana. Ugazabak, jentea konaturatu eiten, arrantxo bat ipini eutson. Eta ozkari, arro, txilintxoari eragiñez, erriko plazara joan zan. Urteetan aurreratutako txakur batek, alan be, esan eutson:

—Zer dala-ta ainbeste arroikeri? Kanpaitxo ori ez daroazu, ba, ona zarea-lako, zeure ezkutuko gatxa iragarteko baiño.

Panparroien kiñu ta egintza arroskoak agiri-agirian jarten dabez olakoen barruko griñak.

#### 186.— **Txakurra leoiari jarraika**

Leoi bat ikusi eban eize-txakur batek, eta aren atzetik ekin eutson jarraika. Leoia, baiña, orroaz biurtu zan, eta txakurra, bildur-erazoa, lengo bidetik itzulirik. Azeri batek, oartzuz, esan eutson:

—Doakabe! Leioaren atzetik ain arro ta aren orroak be ezin eroan!

Edestu leike alegi au, eurak baiño altsuago diranak beztu nairik dabilten arroputzen aurrean; altsuok aurka egitean, laster doaz atzatzeka.

#### 187.— **Leoia eta eltxoa**

Eltxo batek, leioagana urreratuta, esan eutson:

—Ez dautzut bildunik, ez zara-ta ni baiño gogorrago. Bestela ba'diñozu, erakus egizu zer egin zeinken. Zeure erpakaz txatxumurka egin eta zeure agiñakaz eldu? Ori emakume batek be egin daroa bere senarragaz asarre danean! Ni zu baiño gogorrago naz; nai ba'dozu, aup dagizut burrukara.

Eta bere sudurraz txiba jorik, eltxoak leoiari eraso eutson ulerik bako sudur inguruan aragia pika ta pika. Leoia txatxumurka asi zan bere erpakaz, kuku esan arte burrukaldian. Eltxoak, garaille, bere turuta jo-azo eban, eta garaipeñ-kantua asirik, egazka urrindu zan; baiña amaraun baten nastu zan, eta, iruntsiten eben bitarttan, negar egian, bera, indartsuenei be gerra egiñik, orain piztirik arbuigarrienearen eskuetan, amaraunaren agiñetan il bearra.

188.— **Zezena eta eitxoa**

Zezenaren adarrean geratu zan eltxo bat. An luzaro egon ondoren, andik alde egiterakoan, zezenari itandu eutson ia andik bera joaterik nai eban. Zezenak erantzun eutson:

—Etorri ziñanean ez zindudazan somatu, eta joaten zareanean be etzaitut somatuko.

Nori dagokio alegi au? Ez egotez ez joatez, ez zerbitzurik ez kalterik egiteko gauza ez diran gizonai.

*IGOTZ*

**IRITZIAK**



## AITA SANTI ONAINDIAREN OLERKIGINTZA

*Ondorengo au duzu J.M. Lekuonak, aurten maiatzaren 11, 12 ta 13-an Zornotzako erriak eskeiñitako omenaldirako J. Urkizak gertatu zuen «Olerki Guztien Bilduma»-ri jarri zion 16 orrialdeko aintzin-solasa. Baita berau izan zan, gutxi-gorabera, azkenengo egunean, larunbatez, akademi-egintza deituan burutu zuen itzaldiaren guna ere. S.O.*

Eraskota lana du euskal olerkigintzan egina Aita Santi Onaindiak. Zabal-kunde eta irakaskuntz mailan hor dugu bere Milla euskal-olerki eder (1954), funtsezko idaztiturria gertatu dena gerrondoko gure literatur giroan. Gero, olerki itzulpenetan oso gutxik eskain dezake berearen idazki aberastasunik: liburu mailan, Homeroren Odisea (1985). Bergiliren Idazlanak osorik (1966) eta Dante Aleghieriren Jainko-antzerkia (1985): antologi mailan, berriz, hor ditu Esoporen Ipuñak (1966-1986). Horatiren Odak (1955-1969). Gabriela Mistraleri olerki aukera (1952- 1986), Rabindranath Tagoren olerki aukera (1958-1963): eta poema-sorta mailan, azkenik, bi dozena inguru erdal auto-reen olerkiak. Hitz batean, euskal olerkigintzaren muina eskaini digu, eta be-  
rau kanpoko hainbat maisuren ekarriz aberastu.

Olerki mugimentu baten euskarri eta eragile izan dugu Aita Santi. «Oler-ti» aldizkariaren sortzaile eta zuzendaria izan da, ordu zailetan bere bizkar hartzen duen euskal olerkiak plazaratzeko zeregina. Eta esan dezagun, aldizkariak nortasun poetiko jakina ematen diola euskal olerkigintzaren zerbitzari, biztaile eta defendatzaile izan dugunari. Aldizkariak behartu du poesiaz gogoetak egitera, zenbakien osogari eta aberasgarri diren poemak. sortzera edota itzultzera, eta, belaunaldi berriei beren lekua ukatu gabe, gerraurreko olerkariaren babesle gertatzera, joera berriagoen aurrean lehenagokoaren testi-gantza egin.

Oso ezagunak eta eskertuak izanik ere Aita Onaindiak euskal olerki mun-duan eginiko zabalkunde eta eragile lanak, ez zaio hainbeste eskerrik ekarri, behar bada, berak sorturiko poemei, bere poemagintza pertsoanalari. Denok dakigu poema asko eta asko idatzi dituela, eta hori ale honetan ikus daiteke ongienik. Denok dakigu bi olerki liburu badituela, mardulak eta arnas haun-

dikoak. Baina, beste hainbat poeti gertatzen zaionez, oso gutxi hurbildu dira Santi Onaindiaren poesigintza bere osoan aztertzeraz, edota, gutxienez, aurkezpen zehatzago bat egitera.

Ez da bakarrik horrelako bakardadean, batez ere bere behaunaldikoei begiratzen badiegu. Oraindik azterketen zai daude Etxaniz, Gaztelu, Bordari, Monzon, Muniategi, Iraizoz, Zaitegi, Kerexeta, Ugarte eta beste gehiago. Autore bakarren bat ezezik, ia belaunaldiaren parte eder bat edukitzea ongari ez denez, eta gutxiago gurea bezalako egoeran, uste onenez ekin nahi diogu gerrondoko gure poeta baten aurkezpen zabalari eta behin-behineko azterketari.

## 1. EDERKERAZ GOGAPENAK

Aita Santik espreski ez digu aurkeztu bere olerki proiektua, ez digu zuzenean landu norberezko poetika taxatua. Baina eskurarki berak zuzenduriko aldizkarietan teorizatzaile eta adore emaile ere izan denez, olerki alorrean argitaraturiko aleetan, gogapenak egin dizkigu estetikari buruz, olerkia eta olerkaria zer diren gauzatuz.

Bere olerkigintzari buruz proiekturik eta poetikarik zuzenean agertu ez badu ere, bi dozena artikuluko inguru ditu ederrari eta olerkiari eskainiak. Beraz, estetikaren aldetik azaltzen dizkigun kezkek, gauza jakina da, hor azpian, zeharka bederenik, poetika pertsonalaren hari nagusiak adierazten dizkigutela. Eta iruditzen zaigu, autoreak teorikoki esandoak, lagungarri on izango direla, Aita Santiren poemagintza sakonagotik harrotu dezagun.

Olerkiari eta olerkariari dagozkienetan, gerraurreko eta gerrondoko poesiari buruz izan diren eztabaidak kontuan hartzen baditugu, iritzi oso garbia du gure autoreak: «oberik jagi arte, gizaldi onen barruan Lizardi, Orixe. Lauaxeta... dira jainko nagusi» («Olerti», 1969, 10 or.). Istiluak istilu, honek adierazten digu, Santi Onaindiaren poetika, eta behar bada landuena eta adierazgarriena den hura, gerraurreko ederkera lantzeraz lerratzen dela, batez ere Lauaxetaren ildotik.

### 1.1. Olerkia eta olerkaria

Ikuspegi idealdutik marraztu izan digu inoiz Aita Santik olerkariaren irudia. Bi belaunaldien arteko tenka ispilatzen da hitzon azpian: gerraurreko olerkigintzaren eta poesia sozialaren artekoa. Eta gure autoreak oso goian ipintzen ditu olerkariaren dohaiak eta egitekoak, eta goitasun honen arabera epaitzen ditu lehengoak eta oraingoak, gerraurrekoen lan ona aldezkatzuz.

«Irakurri bai, Lizardi'ren Biotz-begietan, Lauaxetaren Arratsberan eta Orixeren olerki-lan jakingarriak. Arein mamiña ta

arein azala! Or egiazko olerkia, olerki iraunkorra! Mundu ontako gauza kaskarrea beste mundu zoragarri bat eratu dauskue. Baiña, naiz jainko andi naiz txiki, olerkaria beti jainko, aztru, asmatzaille jator. Eta jainko dan bitartean, bebil ortik, azkar eta gogotsu, erriaren zuzendari, zeruko Jaungoikoaren adierazle. Goiko naiz beeko, bitzuen lanak eder ta aintzarri» (Ibid).

## 1.2. Erti-lana

Jakingarriena ez da, behar bada, Aita Onaindiak erti-lanaren osagaiak nola ikustne eta adierazten dituen aipatzea. Olerki liburua, erti-lana den aldetik, nola aurkezten duen ikstea, adierazgarria dela esan daiteke. Adibide eran, bi bat pasarte aipa ditzagun:

«Beste goiz batean zelairantz artu dozu. Aldatz-gora zoaz gaiñeko muiñora igon nairik: baiña nekatu egin zara ta apur baten ertzean jarri zara. Lilluragarri dagoz inguruak oro, goi ta bee, urriñerarte bakezko pozaren betetasuna. Luzaroan ederrez asetuta gero, sakelean daroazun Lizardi'ren “Biotz-begietan” edo Orixe'ren “Barne-muinetan” edegi dozu. Lizardiren “Arrats-Gorri” deitxan olerkia irakurten asi zara... Ezin irakurten jarraitu... Geiago ezin irakurriz, egiazki atsegin yako aspaldi orrek arrotu dautson poz-atsegin bete-betea» («Kamel», 1979-3, 55 or.).

Badu antzeko beste pasarte bat, nahiz eta beste egoera batean aipatzen diguna:

«Aireñegun... arrastian, eguraldi gozo, eguzkitsua zalata, ibiltal-ditxo bat egiten joan nintzan. Eguzki ta itzal arteko bide-zidor atsegingarriz niñoaian. Ezker-eskuma altz-lizar, aretx eta sarats gaiñetan, atergabeko txori kanta. Ixillik oro; zearka doan erre-kastoaren polpol eta ulu mea, zorarazten nindun. Olerki liburua neroian esku artean, baiña ezin neban ezer irakurri; izadia neban idaztirik lilluragarriena» («Kamel», 1980-1, 58-59 or.).

Bai liburu baten ederra bere kontestuan ezartzeko, eta bai olerkariak ederraren hotsegile izan behar duela adierazteko, autoreak izadiko ederrera jotzen du. lehenengoan natura kontenplazioaren osagarri duzu, bigarrengoan naturak erti-lana itzali egiten du. Balio paradigmaticoa du izadiak Aita Santiren poetika pertsonalean.

## 1.3. Olerkiaren osagaiak

Honela esaten ditu «Olerti»ko aipatu artikuluan: «Olerkiak, osagai bi ditu: irudi adiera (metafora) ta igiera (ritmua). Eder-agerkarietan sustraiko bereizgarri bi ditugu oncik» (8 or.). Gai hauetaz egiten duen azterketa dela eta,

esan daiteke metaforizazioak eta metrikak zedrikusi haundia dutela Santi Onaindiaren poetikan eta olerkigintzan.

a) Amets bat legez da Olerkia

«Ta olerki-mundu orrek, ainbat gauza, guk sarri ikusi ta ikutzen genduzanak, barrero sortuta, jantzi zoragarri dizditsu, lillurape-nik tintoenean jarten dauskuz. Gauzen mundu barri bat, guk ez genkiana, bizi, indartzu, dardaraz daukagu aurrean; ots, mundu au ta bertoko gauzak, irudimenezko mundu egiñik daukagu» (Ibid. 9. or.).

b) Gar ta jantzi da olerkia

«Barnea gar, jantzi azala. Zoragarri izateko, giak bear. Baita guzti ori oretu, aragitu ta eun-miesa baten barruko bilbe antzera, dana bateraturik, graziz ta edertasunez jazten dauan beste zerbait be. Zer dozu ori? Igiera; erderaz esan, ritmua» (Ibid. 11 or.).

c) Poesia, azkenez, biotz zirrada da.

«Ez bakarrik barnean sentikeran, baita esakeran be; poesia esaten dogunean, arnas-aldi antzera, dana era bardiñean barik, neurri ez-bardiñetan. saltoka lez, orain zaldiaren trakata, trakata lez, gero astoaren txaka, txaka lez neurrian eroan oi dugu. Izkera neurtua ei dogu gure biotz-ikutuaren berezko adierazpena» (Ibid., 12 or.).

Aipamen hauekin guk ez dugu nahi Aita Santiren ederkeraz ikuspegi zehatza ematerik, baizik eta gure nahia da, autorearen iritzi nagusienez baliaturik, egileak duen berarizko poetika jatorra eskuarki aurkeztea. Gerraurreko olerkigintzaren mireslea, olerkiaz eta olerkigintzaz ikuspegi idealdia duena, ederraren ispilu aipatuena naturan ipintzen duena, prezeptiba klasikoan ezezik ederkeran modernoan ere zainak dituena. Batez ere, metaforetan eta erri-tmoan bere emaitza gauzatu nahi lukeen olerkaria dugu. Hau lehenengo hur-bilketa bat litzateke Santi Onaindiaren olerki mundura.

## 2. POEMON BERARIZKO IKUSPEGI JATORRA ZEHAZTEN

Gorago esan dugunez, ikerketa gutxi azaldu zaigu Aita Santiren belaunaldiko poetei buruz. Baina autore horien Olerki Guztiak argitaratzen aldetik zerbait ahalegin gehixeago egin dela dirudi: Orixek, Lizardik, Lauaxetak, S. Mitxelenak, Bordarik, Monzonek, eta abarrek badituzte beren olerki guztiak argitaraturik. Eta orain Aita Santi Onaindiarenak datoz.

Ez dago esan beharrik horrelako idazki osoek dakarten etekina eta mese-dea gure poesigintzaz ikaskuntzarik egin nahi bada, nahitaezkoa denez horrelako gaia eskuartean edukitzea, ezer tajuzkorik lortuko bada. Bilduma hauek dakarte lagintza bakoitzaren kokalekua eta balio-irizpide zehatza.

Baina gero, poeta bakoitzaren ezaugarri nagusienak markatu nahi badira, eta autorearen ekarri berezia azpimarratu nahi bada, eta bakoitzaren nortasun poetikoa irudikatu nahi bada, orduan poemen aukera bat egin beharra dago, eta aukeratutako poemon dohairik berezienak sailkatu eta balioztatu beharra, eta berorien estetika zehaztu beharra. Hau egin ezean, muga estuetan bizitzera behartzen ditugu geure literatur ikerketa eta irakaskuntza. Eta literatur zirku-tuetatik kanpo geratzen dira hainbat autore eta hainbat idazlan.

Denok dakigu, literatur kritika eta unibertsital apeta direla eginkizun honen lehen erantzuleak. Eta nahi genuke gauzak bidera daitezen. Baina bien bitartean, eskakizunek eraginik olerki idatzien aurkezle garenok, saiatu beharra daukagu zerbait onuragarri egiten, geure olerkarien mesedetan egin ere.

Aita Santiren olerkigintza lan mardula da eta luzaroko ahalegina: 1929an hasi eta 1988 artekoa. Pentsatzen dugu, bizi-bizi dagoenez, aurren ere abesten diharduela Larreako galeperrak. Hirurogei urte euskal poesogintzaari etengabe emanik. Hala ere, dena ezin izan neurri berekoa: bada landurik, bada hain landua ez denik. Bada aldian-aldiko kanturik, bada arnas beteko liburu-rik. Bada autorearen historia hobeto ispilatzen duen piezarik, bada nortasun poetikoarekin lotura txikiagoa agertzen duen bertso-sortarik.

Lan antologikorik egon ezean, guk liburuak bakarrik hartu ditugu gogoan: Goiz-nabar (1971) eta Nere baserria (1985). Hona zergatik: poema libururen bat kaleratzen duenak, ikerketa estetikoren bat aurkeztu nahi du, edota poemen aukera bat. Eta bi gauzok jakingarriagoak dira eskuarki, motibazio estetikorik gabe eginiko poemak baino. Horregatik gure lehenengo aukera: liburuak bakarrik kontuan hartzea.

Gero, beste oharkizun bat badago, liburuok antolatzeko prozedurak egin-erazia. Nere baserria liburua, osotasun baten barman garaturik dago, planu bati atxekia, poema nagusia eta arnas haundikoa gertatuz. Ez hala Goiznabar: olerki bildumaren eitte haundiagoa du, urterik urte sailak osatzen direlarik. Badirudi bilduma eittea duela. Horregatik aukera bat egin beharra dago, Onaindiaren poemagintz baliagarriena azpimarratu nahi bada. Guk berezie-nik, I Sailla, 1929-1935 eta II Sailla, 1936-1940 ditugu aipagarrien jotzen ditugunak azterketarako.

Bestalde, noiz eta norako idatzi zuen, eta zernolako bizitz egoeran, guzti hau ere kontuan hartzekoa da. Poemarik landuenak ditu, ahalegin poetikoari begiratuz behintzat, olerki lehiaketetako idatzi zituenak, Aitzolek eskatuta «Yakintza»-rako idatzi zituenak, kultur giro bereziren baten eraginpean idatzirikoak. Gainerakoetan, batez ere berak zuzenduriko aldizkarien betelane-rako edo idatzitakoek, bistan da ez dutela beste aukeratu horien goitasunik.

Azkenik, ezin dira ikuspegi berberetik epaitu liburuotako poemak. Goiz-nabar jo daiteke Lizardi eta Lauaxetaren harikoa, zehaztasunak zehaztasun. Baina Nire baserria, poema nagusien harikoa dugu. Orixeren Euskaldunak poemaren proposizioan. Badu kideasunik Mitxelenaren Arantzazu euskal po-

ema (1949) liburuarekin, eta gutxiago ezagutzen diren beste poemekin. Ez dugu ahaztu behar, arnas haundiko poemagintza hau indarrean zegoela gerrondoko olerkarien artean, eta Onaindiak ere bide hori erabili duela. Bigarren Aita Santi bat dugu: gaiak luze, moldeak herrikoi, tradizioaz lotura edukiz, kantagarri diren poemak landuz, ikuspegi historiko-kulturalak kantagai hartuz idatzitako poemagintza.

Beraz, bi liburuok bakarrik digutu begiaurrean geure azterketan, eta berauetan ardura bereziz idatzitakoak arakatu nahi genituzke. Baina bieri lehen-tasun bera eman gabe. Azterketak lehen liburuko zati garrantzitsuenez bakarrik egingo ditugu, uste dugularik berauetan dagoela Onaindiaren olerkigintza bikainena. Bigarren liburuaz ez dugu azterketarik egingo, baizik eta konparatu egingo ditugu beren artean bi liburuok, horrela Santi Onaindiarne bi une poetikoak azpimarka ditzagun: gerraurrekoen harikoa, apeta-suena, eta gerrondokoa, herrikoiagoa. larreako poetaren bi ereskinak.

*JUAN MARI LEKUONA*

## MARURI-TAR ERRAMUN

Olerkaria. Baña nor dogu olerkari ia ez ezagun au? Aita Onaindiaren MI-LLA EUSKAL OLERKI EDER izeneko olerki-bilduma aberatsean daurki-guz lau olerki: Edur Maluta, Nere Ama, Enada Eriotzan, ta, Ostiral Deuna. «Olerkari bikaiña, bulkoz jagi ta biotzondo ezti. Igo miñez dager beti uso zuri antzera, zeru-azpiz ega luzean biraka. Usain gozoz lurrundu ditu bertsoak, joran, kili-kili ta txingar bizi diranak. Gai askotan berariz jardunik, poesi liburu bi argitara emonak ditu. “BIOTZA ABESLARI” (Zornotza, 1927) ta, “LILI-TXINGAR” (Tolosa, 1928) Lenengoa bizkaieraz ta, bigarrena gipuzkeraz. Izkeraz errez gozoa dau albait-danez. Ba-ditu sarituak be, “Elur-Maluta”, esaterako, «Enada Eriotzan», ta, abar.» Olerkari beraren zeaztasunik ez dakar.

Bi olerki liburu ez ezik, ba-dau irugarren bat. Beraz iru dira argitatuak:

«TXINDOR-EGADAK» (Gráficas Izarra, 1964, San Sebastián. Len-aldi-ko «BIOTZA ABESLARI» eta «LILI-TXINGAR» arrera onez saldu ziranez bigarrenez argitalduak izan ziran, biak, Gráficas Izarra argitaletxean, 1965 garren urtean.

Elizgizona zanik ez dago zalantzarik. Irakurri besterik ez dago bere olerkiei darien zerutasun guna. 1924, 1925, 1926, 1927, 1928, 1930 garren urteetan egindakoak Ondarrabi'ko egotaldian. Batzuk baita Muskaria (Tudela) eta Armintza'n.

Ondorengo olerki onen bitartez dakigu zein dan argira dakarkigun olerkari apal onen yayoterrria.

### *Neure Yatoterrria*

Maruriko errituak,  
Izararren txikerra,  
Ikusgai ederrak daukoz  
Asetzeko begia.

3

Eztarritik bera doya  
Arin urdail barrena,  
Batek nai baño lenago  
Bertako txakoliña.

Ango mats ta mallukiak  
Dira goxo-goxoak,  
Ango zalayak ederrak  
Lilik urrinkaituak.

4

Ango elizpen egonak  
Arako dauko seta  
Ibar eder ta zabalak  
Egin dotso lillura.

5

Gordetako itsas axetik  
Mendia iparraldera  
Eliza erpintxo baten  
Egoaldera ibarra.

7

Eta ain sinistetsuak  
Bertako biztanleak,  
Jaungoikoa otseinduaz  
Pozik bizi direnak.

6

Etxe guztiak banaka  
Ortuz inguratuak  
Eta ugari ortuetan  
Yanaririk onenak.

8

Gizaguren jayoterra  
Pozarren diñot dala  
Larrazabal eta Azkorra  
bikañenak direla.

9

Olakoxe neure erria  
Zinez maitagarria,  
Benetan dodala maite  
Neure yayoterra.

.....

Obeto margotua izan leiteke edo argazkitua erri txiki onen izaera begi-koa? Ikuskai ederrak; mats ta mallukiak goxo-goxoak, zelayak ederrak; ibar eder ta zabalak; itsas-axea babestuz, mendia iparraldera; eliza erpintxo baten; egoaldera ibarra ta etxe guztiak banaka ortuz inguratuak. Orduko ikuspegi bedeinkatuak! Txakoliñaren ona! Gaur egun orrela ete da?

### UMEZURTZ

Maruri Erramun'en bertsoak aztertuz egoera itun onen berein ta bost zeaztasun daurkiguz. NEURE AMA izenburututakoan onako auek:

«Ezagutu orduko  
Galdu neban asna,  
Ordugik nik ez dakit  
Zer dan onginaia.

Axe zan onginaia  
Onginai goxua,  
Beste guztiak dira  
Onginai apurra.

Emen nabil geurtik  
Ni ama billaka  
Ta onginai guztiakaz  
Ezin dodala egin  
Amaren erdia. »

Umezurtztasun gaia bein ta barriro dakar arira:



NEGARRA

«Adu txarrak utzi nindun  
Umezurtz goizeti,  
Amaren ordez negarra  
Egonaz ugari.

Txiro-ogasuna ornen da  
Negar-ittia,  
Ta ni ogasun orretan  
Nazela aberatsa.

.....

«Txindor-Egadak» liburuko 106 garren orrialdean be, antzeratsu dator-  
kigu.

UMEZURTZ

«Umezurtz naiz  
Gau ta egun  
Ama bearren  
Egonarren ni  
Ez det amarik

Ez arrebarik  
Edo anairik,  
Aita lanean  
Urian olan

Eta etxean  
Neuxek bakarrik  
Gasos gasorik,  
itun-itunik.

.....  
Ludi onetan  
Itun bizi da  
Ama gabeko  
Seme gaxoa»

.....

UMEZURTZ OSO OSOAN

Alde guztietatik umezurtz,  
Ama illa, aitik ez, amarik ez,  
Daukodazan gurasordeak baño  
Askoz obe bapere euki ez.

Umezurtz etxean,  
Umezurtz kanpoan.  
Arren, Jaunori, ni legez  
Ez iñor utzi munduan.

.....

Eta amaitzeko gai Lili-Txingar'ko 125 garren orri aldean onako du:

BETI UMEZURTZ

«Neure bizitza  
Ama bagea  
Beti umezurtz  
Ituna dala.

Kalbarioan  
Beti nekea,  
Neure biotzean  
Beti arrantza.

Bakartadea  
Neure barruan  
Etz zoruna  
Beti urrunan.

.....

Maruri'k liburu bakoitzean Jaungoikotiak, Loretxuak edo Landako Loretxuak eta Naskaldiak atalburuturiko sailletan banatuak dagerz bere olerki apal ta apal bezi eder ta errikoiak.

Elizgizon au zintzo jokatuz bere oler-lanetan Jainko-egarri aldarrikatuz dabil autortuz:

«Maitatzeko egiña  
Da neure biotza;  
Ta, maitasun, maitasun  
Jabilt deadarka.

«Jainkoantzat egiña  
Da neure gogoa;  
Jabilt eskarika  
Jainkoa ta Jainkoa

Eraberean euskaldun agertzen da; benetako aldezle lez ots dagi:

«Zergaitik zabiltze orrelan  
Gizon anker eta ergelak  
Irainduaz ama euskera  
Iraintzen zeuen buruak?

Erri guztietan darabilte  
Euskera oinperatu,a  
Ez negarrik, ama gaxua,  
Emen daukazu semea.

«Euskera barik euskalduna  
Pipiak jo daun enborra,  
Ez lorarik ez igalirik  
Iñoiz emongo ez duana».

Txibo Landako Alaba deritxon olerkian euskaldun guraso askoren euske-  
reari buruzko ardurarik eza edo etsaikeriaren agerpen lazgatia da. Luzea da-  
nak emen jartzeko baiña, ona emen agiri batzu:

«Mirentxu nora zoaiz orren arin  
yo que no se bascuence,  
Auxek bai dala entzun samiña  
Ta askotan entzuten dana.

Aipatu degun Mirentxu ori  
Txibo landako alaba,  
Etxe orretan guraso ta abar  
Euskaldunakdanak dira.

3

4

Alde batetik eta bestetik  
Euskaldunak danak dira,  
Aurren etxe aretan tutik  
Ez da egiten euskera.

Mirentxu asi da ikastolara  
An ez da geiago euskerarik,  
Onen antzeko kirtenkeriak  
Eiten ditugu pentsa barik.

Ondo ikasi dagien edo  
Mirentxuk bere erdeea,  
Ingerutik jaurtiten dogu  
Gure euskera maitia.

Txibo landako Mirentxu asko  
Daoz Euskalerrin zabaldurik,  
Izurri ori galtzen ezpadu  
Gagoz betiko galdurik.  
..... Armintza, 19-4-60

*Sasi Euskaldunak:*

(ta diño):

«Sapaburuak  
Legez ugari  
Ur zikiñean  
Dagoz olango  
Euskaldunak gaur  
Euskalerrian.

Ama Euskera  
Maite zaitut nik  
Bene-benetan,  
Nere bizi au  
Zeure izango da  
Naizen artean»

Euskerearen alorrean langille asperga onek Jaungoikozko olerki biotzgariak idatzi ebazan: AMA SORTZEZ GARBIARI, PRANTZISKO DEUNAREN OGASUNA, MAITALLE BILLAKA, SUSANA, MALTZURKERIZ ZERURA, ASIZ'KO PRANTZISKO DEUNAREN ERIOTZA, BEGOÑA'-KO AMA, OÑAZETUAZ ERRUKI, ASTOAREN ESPAK, BARIKU GUREN, NEKETAKO AMARI, GUBIOKO OTSOA, MIREN IZENA, JESUSEN BIOTZA, GAZTELUGATXE, ZERU BIDEA ta, beste asko.

## ZURE BIDEA:

«Gaste nintzala	Aldapak gora	Mendi gallurran
Mendi gañera	Bide esmtzen	Biderik etzan
Igon nai eta,	Batzuk nekauta	An bil giñanak
Mutiko pillak	Bestek etsita	Beste guztiak
Artu genduan	Bidean errez	Pot ein bidean.
Bide zabala.	Askok utzitzen.	

4

5

Zeru bidean	Samiña baña
Adibidea	Ezin ukatu
Auxe bai dala,	Dala egia.

Dazta daiguzan Jaungoikozko olerkien ataltxo batzuk onuratu gaitean beren zem-gogozko otoitz-neurtitzez:

## MIREN IZENA

Donokiko-bide argitzeko	Ekaitzean neure gogo-ontzia
Dan goizeko izar argia	Errez yon daike ondora,
Izango da orain eta beti	Arin agertuten ezpayako
Mirenen izen gozoa.	Itsasoko artizarra.

3

4

Bere otseindarien aboan	Miren izenak gure abotik
Mirenen izen gozoa	Ez dau egin bear alde,
Gogoko bizitza sendoaren	Zitzaldian galduk geralako
Ikur ziurra alegi da.	Orren laguntzarik bage.

5

6

Obenaren pisuaz etxitu	Argian aurrean iges dagi
Bizi zarean gizona,	Ludian illuntasunak,
Oguzi ustez Miren izena;	Miren ustetsu esan ezkerro,
Zeugaz dozu itxaropena.	Iges dagi diabruak.

7

Ekaitz-itsasoan dabillenenentzat  
Argi da Miren-izena,  
Argi ontatik aldentzen danak  
Ganean dau ondamera.

9

Ia beti daukogu erlea  
Ezti gozoen ganean,  
Eta ereslari, ertilarri,  
Eresintxuen artean.

.....

8

Miren izena ezta baño  
Gozoago zera aboan,  
Eta doñu eresintxu baño  
Bigunago belarrian.

10

Nik bere Miren izen gozoa  
Euki nai beti alboan,  
Betiro bizi nai dodalako  
Atsegiñen darioan.

.....

### BIOTZ ARANTZAK

«Iguinguak izanarren  
Biotzeko arantzak,  
Eurek dira gizonaren  
Ongillerik onenak.

Sarri ez daki gizonak  
Biotz-arantza gaberik,  
Biriki ondoan berak  
Ote daukan biotzik.

ERRUKI ta MAITASUNA

Biotzeko bi lora

Arin zimelduko dira Arantzarik ezpada»

Ikertu daiguzan orain olerkariaren LORATXUAK: Esatebaterako beren txori-sailleko Urretxindorra, Karnaba, Txori eria, Txepetxa, Berderoya, Txindorra, Elayak, Birigarroa, Pinpilinpauxak, Txitoak, Kukua ta abar.

Gai arruntak, arrunkiro idatziak agerkera egia, neurtitz apalez itz-lauz-koak balira lez. Batzuk ordea jakingarriak dira ta ben-benak ikastoletarako. Adibidez, TXITOAK.

1

Ollotegian  
Kakaraka  
Gure olloa  
Asia da.

2

Arrautz zuritan  
Bat, bi, iru, lau,  
Dozen ederra  
Imini dau.

3

Ollotegian  
Klok eta klok  
Gure olloak  
Gaur egin yok.

4

Ollo lokea  
Guk ba-dogu  
Arrautz ganean  
Imingo gu.

5

Amabi arrautz  
Azpin yarrrik,  
Amabi txito  
Dabiltz zutik.

6

Bata zuria  
Beste baltza,  
Gaxo ez dana  
Pixkor dala.

7

Aman nekeak  
 Arek asten  
 Nok esan errez  
 Zenbat diren.

8

Miru goseti  
 Ondon beti  
 Txito gaxoen  
 Zelatari.

9

Olo lokea  
 Txito ganean,  
 Bere txitoak  
 Zaitzearren.

10

Ollasko goxo  
 Ondo erre  
 Goxo izenarren  
 Kostau be.

.....

Jaungoikozko maitasunez ta euzko zaletasunez gure aurrekoak izan doguzan euzkeltzale auen izenak aintzakotzat artzekoak dira bai, ezertariko laguntza ta etsaikerizko gizarte illun baten menpean ain erakutsi ederra emon euskuelako lotsakizun barik euskerea maitekiro argitaratuz. Ba-dakigu goimallako olerkariak ez dirala, baña, beren tokitxoa bear dabe euskal alorreko Izendegian, euskera oinperatuaren aldezle ta serbitzari izan diralako.

Txori Kukuari buruz esakera asko dagoz. Kukuari txindorrak azten dautsazala umeak, txindorren arrautzak jan ta bereak ipinten dauzala ta abar. «Kukuak egiten dau Maiatzean kuku, garagarrillean gelditzen da mutu».

## KUKUA

Kukua dala  
 Misterioa,  
 Beti aboan  
 Ta beti illuna

Ez dala umerik  
 Ez da gazterik,  
 Kukuaz sarri  
 Mintzo ez danik.

Zarrak batera  
 Nai dute poztu,  
 Gaztetan legez  
 Entzunik kuku.

4

Txori artean  
 markesa dogu,  
 Berak umerik  
 Aziko ez du.

5

Baña iñudek  
 Arkitzen ditu,  
 Txoritxoetan  
 Beti erreztxu.

6

Kabiak duban  
 Iñudek duban  
 Txori au lakorik  
 Ez da munduan.

.....

Aipagarriak dira baita AMA TA GUDA, GIZON BULARTSUA, JOSE-PA-ANTONI (ipuin zarra) BERROBIKO BASERRITARRA, ONDARRA-BIKO SEMEAK, AUTARKI DIRUA, IRU ATSO, BUSTURIA.

«Busturiko erritxoa  
 Beti irriparreau,  
 Alai egoten zera zu  
 Itsas basterrean.

Zergaitik niri biotza  
 Lapurtu didazu,  
 Ixil eta leun, lapurra  
 Baziña legez zu?

Zergaitik Busturirako  
 Daukat detan lera,  
 Busturia yayoterri  
 Neureztat ez dala?

4

Zergaitik bein Busturira  
Neu eldu ezkeru,  
Abiña ta Sukarrieta  
Ikus bear gero?

5

Abiña ta Sukarrieta  
Txatxarra ta Leida  
Busturiagaz zerate  
Lur zoragarria.

6

Gizon euskaldun bikañen  
Naigabe-oinkadak  
Bikaindu ta omenduko  
Itxaso basterrak.

7

Benetan zerate zuek  
Baster omenkorrak  
Ta Eusko biotzarentzat  
TXOKO BEGIKOAK

.....  
Oarkari agertzen haku IRU ATSO deritxonean:

«Iketza lez	Goiko kalean	Beti man-nariz
Iñor baltzitzen	Arrats aurrean	Edo arguyan
Iru atso zar	Euren batzarran	Agiri dala
Badakitela	Bizi guztiri	Ez dala mutu
Nik non dabilten.	Narru kentzean.	Euren artean»

.....  
«Iketza lez —iñor baltzitzen— beti marmariz» ibilli бага goazen orain  
MENDIGOIZALEA begiztatzeraz:

1

«Mendigoizale  
Begikoa,  
Goizean goizti  
Mendik gora.

2

Gau illunean  
Kukurruku  
Gure ollarra  
Asi yaku.

3

Egun sentia  
Ganen dogu  
Gaur egin badau  
Kukurruk.

4

Mendigoizale  
Yagi adi  
Gugaz gurabok  
Gaur etorri.

5

Goizeko izarra  
Agertu dok  
Zeñen ederra  
Ikusikok.

6

Mendi ganetik  
Guk Aberri  
Egin biogu  
Gaur ikusi.

7

Beti ederra  
Dan Aberri  
Mendi ganetik  
Zoragarri.

8

Aberri ezik  
Donokia  
Mendi ganetik  
Edertzen da.

9

Gure Abesti  
Gozenak  
Mendi goyetan  
Abestuak.

1 0

Asmo aberkoi  
Sendoenak  
mendi-gañetan  
Artukoak.

1 1

Agur mendiak  
Biar arte,  
Zuen begiak  
Dodaz maite.

Euskelzale, ta abertzale, ta Jaungoikozale agertzen dan gizon onen INEURE OTOITZA egoki dator emen:

«Begirunetsu	Otoitz-saria
Gora ta gora	Betor bai Jauna
Doyan legeztxe	Betor ugari
Kedats-lurriña,	Gaxo onengana,
Goiz arratsetan	Neurri gabeko
Neure otoitza	Zeure errukia
Gorantz doyala	Senda dagien
Jainko aurrera.	Neure biotza.

Txepetxari buruz be ederto osatu eban ta onela edestutzen dausku txori onen izaera:

**1**

«Ardurez betea da txepetxa  
Ganera pizkor ta txikerra,  
Ain iguindua izenagaitik  
Ez da iguingarria txepetxa.

**2**

Guzurrez norbaitek esan eban  
Gurutzea loitu ebal,  
Geroztik guztin gorrotogarri  
Orra beti txepetx gaxoa.

**3**

Zomorro txar kaltegarrieri  
Bakar-bakarrik kalte eginda  
Kabi eskutu ta bigunean  
Asten dau umetza galanta.

**4**

Ardurek egin erazten dautso  
Txarraat indartsu ta zorrotza,  
Sarri kantari egonagaitik  
Iñok ez maite bere doñua.

**5**

«Auts margoko txoritxu txikerra  
Txoririk pizkor ta azkarreana,  
Beti artuarren esker beltza  
Beti dagizu egikun ana».

.....

Olerkariak egindako gure lurraldeko txori-ipuñei amaiera emoteko Berderoyarena dakarkigu:

**1**

«Ardurez betea yagoten dau  
Berderoyak kabia,  
Oi! yagoko baneu neurea  
Txori onen antzera.

**2**

Mutiko txikerra nintzela  
Txorikumez betea,  
Pozez zoratu arkitu neban  
Txori onen kabia.

3

Lenengo aldiz nekusan, neuk  
Arkituko kabian  
Txorikume yantzi yantziak  
Egarako aroan

4

Bota neutson esku bateri  
Egazka asi zanari,  
Ni noz ats emongo berari  
Bea bigun guren ni.

5

Nire txorikume gaxoa  
Txori amea izan zan,  
Eta nok azaldu daikea  
Zenbat mintsu zebillan?

6

Erdi egaz, erdi narraska  
Bere pii itunean,  
An zebillan errukigarri  
Neure aldamenean.

7

Eta itxirik txorikumeak  
Amearen ondoan,  
Ama-maitasunez oldozka  
Etxera itzuli nintzan.

.....

Bai erakusbide ederra olerkariak jazotako txori-amearen bere umeen aldeko maitetasun erakutsia!

Maruri onen antzera beste asko dagoz aztuta, ixiltzazko estaldurapean.

Areik egindako lana ez da alperrik galtzeko /. Orregaitik alegindu, saiatu bear gara, tarte-marteka aurkitu leiteken zillar-urruterei aberasgarri apurrak euskera gaxoaren bizi-onerako maitasunez gizarteratzen. Gaur beste erabaterara bizi gara eta elertiaren, olertiaren barrutian be ikaragarritzko abiadan egunik egun barrenduak gabiltza mundu aurrera-bidetuaren eragin azkarrean edo azkarregian iraultzaren iraultzaz oraindik berrikeri artean, gorpuztu edo opñarritu eziñik izkuntzarekiko oldoz erabilpenean.

Gure izkuntza zarraren olertitza, eraberean, aurrera-bidetua dabil egokitasun billa. Olerkari onak daukaguz, bat baño geiago, euskerearen alorrean. Baña, len-bidea aztu barik jokatu bear dogu ainbeste eragozpen ta loturakitzun barruan gogo biziz, maitasunez euskera-alde lanpetutako izenik apaleneak be gogoraziz.

Maruri-tar Erramun dogu bat, bere bizitza guztian euskerearen alde gogo ta biotzez arduratu zana. Bere euskerea maite bazuan be, besteak ez ebazan gorrotatzen. Berak diñoan lez:



«Izkuntz guztiak  
ditut nik maite,  
baño nerea  
zazpitan maite.  
Euskaldun jayo  
ta euskaldun il,  
Amets ortantxe  
nik bizi nai.

Ta, orrelako euskaldun langillei esker, bizirik dirau gure euskereak beren etengabeko aurrerabidean.

*Muniategi-tar Sabin 1985-ko Otsallean.*